

KRISTAUTASUNA

Paulo Agirrebaltzategi

Nazaretoko Jesusek (Mesia = **Kristo** deituradunak) iragarri, aldarrikatu eta zabalduriko salbamen-mezua eta buruturiko salbamen-ekintzari deritza, hasteko, kristautasuna. Orain dela ia hogeit hamar urte, kristau-aroaren lehen urtetan, Jesusen jaiotza bera ipini bait zuten kristau-aroaren abiapuntutzat. Palestinan bizi izan zen Jesus; Herri hau Erromako inperioaren menpe zegoen orduan; Zesar Augusto zen enperadorea haren jaiotzakoan. Ik. Salbamen-historia; Jesukristo.

Ordoren, kristau-bidea esan nahi du kristautasunak: hau da, Jesukristoren jarraitzaileen izaera eta biziera. Kristo hil eta handik hainbat urtetara hartu zuten Antiokian kristauen izena Nazaretoko Jesusen jarraitzaileek. Ik. Bidea.

Hirugarrenik, Jesusen heriotzaren ondoren eta Haren mezu eta bizieran oinarriturik sortu eta zabalduriko erlijiozko mugimendu eta erakundeari deritza kristautasuna: beraren *liburu santu, irakasbidezko gorputz, *sakramentu eta errito-sistema, eraketa sozial, *ministro eta *hierarkia, eta guzti.

Adiera zabalagoz, kristautasuna esaten da, kristau-Elizaren edo -Elizen eraginez, historian zehar eratu eta gorpuzturiko kultura edo zibilizazio-modua: halako pentsamolde, ohitura, erakunde sozial eta artezko obretan banarmentzen dena.

Etimologiaz aurrena izanik ere, kristautasuna bada, azkenik, orain arte aipaturiko elementu, lagun, erakunde eta abarren "tasuna": kristau-tasuna.

Hemen bereziki bigarren eta hirugarren adierei helduko dizkiegu.

Gertakari eta agerkari historiko konplexua da kristautasuna. Hiru aldetatik bederen konplexutzen da kristautasunaren azalpena: 1) Batetik, Jesukristoren izaera, *misioa eta irakasbidea ulertzean, hainbat ezberdintasun sortu dira eta *elkarte edo *Eliza gisa eratu, denak beren buruak kristautzat dauzkatenak. 2) Bestalde, *ebanjelioetan agertzen diren mezu eta bidearen sotiltasuna, freskotasuna eta biluztasuna, arropa ugari eta kolore askokoz jantzi eta kargatu dituzte mendeetan zehar *teologiek, *liturgiek, *erritoek eta erakundeek, Elizen, kulturen eta garai bakoitzeko pentsaeren arabera. 3) Hirugarrenik, norberaren bizi-esperientziari eta klase sozialen egiturari aski atxekirik dago gizabanakoak edo gizataldeak ulertzen eta bizi izaten duen kristautasuna.

Hitz batez, kristau-era eta -erakunde asko nabarmendu dira, kultura historiko, gizarte-klaseen eta norbanakoen izaeraren arabera. Nekez bil daitezke era guzti horiek definizio akademiko eta abstraktu bakarrena.

Ezberdintasun, ugaritasun eta konplexutasun handi horren barruan, **kristau-bideaz, -mugimenduaz, -elkartez eta -erakundeaz** mintzatuko gara: hau da, kristau-erlijioaz.

I. KRISTAUTASUNA: ERREBELAZIOA ETA ERLIJIOA

Lehen arazoa, eta nolabait gaira sartu aurretikoa, hauxe dugu, hain zuzen: Ba ote dago-kion kristautasunari erlijioa kategoriatan egotzerik, edota kristautasuna erlijio konparatuen artean sartzerik ba ote dagoen, eta, beraz, erlijioaren edo erlijioen hiztegiaren zein leku duen kristautasunak, honen fedeko lehen *sineskaiaetakoa kristau-salbabidearen absolututasuna denez, eta beste erlijioen artean nahasteari edo horiekin parekatzeari uko egiten dionez. Ik. Erlijioen historia; Erlijio-zientziak.

Erlijioaren definizioa *sakratua/profanoa bereizkuntzaren gain ipintzen baldin bada, eta sakratutzaokoren agerpen eta instituzionalpentzat hartzen bada hura, kristautasunak baditu horrelako definizioaren barruan sartzeko eragozpenak.

Salbamen-bidetzat hartzen bada, berriz, erlijioa, orduan askoz hurbilagoa gertatzen zaio hori kristautasunari. *Salbamenak, ordea, ez du erreferentzia kosmikoa kristauarentzat: ez da profanoaren barrutitik ihes egin eta sakratuaren barrutian babesa eta askapena aurkitzea. Historiko-eskatologikoa da kristau-salbamena, Jainkoaren "misteriozko" presentziaren eraginez beteta dagoelako historia arrunta bera. *Salbamen-historia da, norbanakoaren,

Herriaren eta mundu osoaren historiaren barruan gertatzen dena, hori gaindituz. Historiako *misterioari dagokio kristautasuna eta ez *kosmoseko sakratuzkoari.

Ikuskera horretatik abiatuz, hiru momentu dialektikotan edo, erantzun dakioke goian egindako galderari: Erlijioa al da kristautasuna?

1. **Baieztapenaren momentua:** Erlijioa da kristautasuna eta erlijioetan erlijioena. Misterioaren edo Jainkoaren errebelazioan, goi-agerkundera, oinarritzen da erlijioa; Jainkoaren *kreazioa eta agerkunde historikoa jainkozko salbamen-asmu berberaren bidetik doaz; kreazioa bera ere nolabaiteko errebelazioa delako eta horri darion errebelazio naturala errebelazio historikoa eta positiboaren oinarria delako. Errebelazio natural horretan du oinarria erlijioak, kristautasunaren irakastez, behin baino gehiagotan desbideratu baldin bada ere jainkozko errebelazio hori, eta *idolatriara jo badute ere gizon-emakumeek eta Herriek. Kristau-errebelazioa, Israel Herriari Jainkoak historian egindakoaren jarraipen eta burutzapen dena, goi-agerkunde positiboa eta historikoa da, beste erlijioetako "errebelazioen" burutzapena eta gainditzapena: bera da Jainkoaren asmotan azkenburuko eta behin-betiko errebelazioa edo goi-agerkundera. Jesukristo, Jainko gizon egina, da Jainkoaren azkenburuko eta behin-betiko errebelazio bikaina, hain zuzen. Eta Jesukristogan bere jatorria eta oinarria duen kristautasuna erlijiorik behinena da: absolutua eta unibertsala, Jainkoaren gizadi osoarentzako salbamen-asmuaren arabera. Ik. Agerkundera.

2. **Ukapenaren momentua:** Kristautasuna ez da sakratuaren erlijioa. Zer sakratuaren "erlijiozko" adierazpenik nabarmenena **sakrifizioa** izan ohi da, horren bidez halako gauzak, animaliak, gizakiak, lekuak, etab. zer profanoaren barrutitik atera eta zer sakratuaren barrutira igarotzen bait dira. Sakrifizioaren erlijiozko instituzioa osotzera datoz *tenplua eta *apaiz sakrifikatzailea. Kristautasunarentzat sakrifizio bakarra dago, *Jesukristoren gurutzekoa; kristauek horren *oroitzapena edota erritozko *gertaberritzapena ospatu besterik ez dute egiten. Jesukristoren gurutzeko *oparian, berriz, Osea profeta aipatuz. Sakrifizioak egiteko apaiza ere desagerturik gelditzen da *gurutzeko oparian, apaizak bere burua heriotzara eman duenez; eta ondorioz kristau fededun guztiak bihurtzen dira *apaiz, beren eguneroko eta munduko bizitzan opari izpiritualak eskaintzeko, kristau-teologiaren arabera. Azkenik, sakrifizioak eskaintzeko tenplua ere desagertu egin zen gurutzeko sakrifizioarekin: horren sinbolotzat aipatu ohi dute Jerusalemgo tenpluko errezelaren urratzea. Dena dela, aurrerantzean fededun bakoitzak da Jainkoaren etxea eta *eliza (eraikina) Elizaren (kristau-elkartearen) *batzarerako lekua bihurtzen da. Ik. Sekularpena eta erlijioa.

3. **Berrespenaren momentua:** Sakramentuaren erlijioa da kristautasuna. Baieztapena eta ukapena bateratuz eta biak gaindituz gertatzen da berrespen dialektikoa. Jesukristoren *piztueraren eta *Izpiritu Santuaren eraginez (*Bazkoa eta *Mendekostea) sortu eta eratu zen fededunen *elkarte berria: *Eliza. Batetik, Izpiritu Santuaren presentziaz eta eraginez mundu eta izaki guztiak berriturik gertatzen dira: sakratuaren eta profanoaren arteko bereizkuntza gainditurik gelditzen da; Izpirituak dena santutzen du, baina ez sakraltzen. Eta horrengatik, munduko edozerk balio **sakramental**a (ez sakrala) hartzen du: hau da, Jainkoaren salbamenezko misterioaren eta eragin izpiritualaren zeinu eta bide bihurtzen da. Misterioaren mundubarruko bertakotasun sakramentalak indartu egiten du zer mundutarraren autonomia.

Mundu desakraldu eta santutu horretan eratzen da kristau fededunen elkarte historikoa, Jainkoaren Erreinuaren sakramentu historikoa gisa. *Fedean eta bihotz-berrikuntzaren adierazgarri den bataioko sakramentuan oinarritzen da elkarte berria. Elkarrenganako *maitasuna, munduan eta historian betetzekoa, da horien ezaugarri nagusia. Edozein bizieratan edo lanbidetan eta edozein gizartezko egituratan bizi behar du kristauak bere fedea eta egikaritu bere maitasuna; bestalde, edozein kultura eta hizkuntza da gai kristautasunaren (Elizaren) *kredoari, *liturgiari eta *elkarteari instituzionalpena eta *kulturaztapena emateko; ez dago Herri edo kultura edo hizkuntza sakraturik. Kultura eta hizkuntza guztietan gorputz hartzera bideratuta dago Jainkoaren Erreina, Eliz elkarte "berriak" eta partikularrak eratuz. Horrela bada, Jainkoaren Erreinuak forma historiko, sozial eta kulturazko konkretuak hartuz, berretsi egiten du erlijioa, munduaz haraindiko misterioari buruzko halako *irakasbidearen, ihardunbidearen eta *arabidearen sistema "kulturazkoa" denez. ik. Jainkoaren Erreina.

Erlijioari buruzko kristautasunaren erlazioa horrelakoa baldin bada, berehala datorkigu kristautasunaren eta sekularpenaren arteko erlazioa esplizitatu eta aztertu beharra,

sarritan sekularpena erlijioaren ukapen gisa agertzen denez. Orain artekoaren luzagarri eta osagarritzat, laburki puntu nagusi batzuk nabarmenduko ditugu.

Erlijiozkoari buruz munduak duen beregaintasuna baldin bada sekularitasuna, sekularpenaren bi aurpegiak hauek dira: munduaren de-sakralkuntza edo ezdonespena (arruntespena) eta misterioaren munduartzea. Kristau-errebelazioaren historikotasunak eta Jainkoaren Erreinuaren historikotzeak biak daramatzate.

Kristau-errebelazioaren aldetiko *munduaren (espazioaren eta denboraren) de-sakralkuntzaren lehen oinarria *kreazioaren irakatsian bertan dago, Jainkoak mundua sortu eta gizakiaren eskuetan utzi duenean horren lantzeko eta burutzeko eginkizuna. Ebanjelioak iragartzen eta aldarrikatzen duen Jainkoaren Erreinua, berriz, historikoa izanik, ez dago halako garairi lotua --eskatologikoa da--, eta ez dago halako lekuri lotua --misiologikoa da--. Jainkoaren Erreinuaren historikotze gisa eratzten den Eliza eskatologikoa eta misiologikoa, eta horren edonoizko eta edonongo konkretizazio historikoa ez da inola ere erabatekoa. Erreinuaren izaera absolutu horren izenean, hain zuzen, espazioa eta denbora --edota horietan dagoen edozein-- erlatibizaturik eta de-sakraldurik gelditzen da. Ez da harriztekoa, inperioko paganoei kristauak ateotzat jo izana, *enperadorearen gurtzari uko egiten ziotelako. Enperadorearen irudia absolutizatzearen eta sakralitzearen aurkako jarrerara ezinbestekoa zuen kristau-fedeak. Ebanjelioan bertan ez al dago esanda: "Eman zesar-i zesarrena eta Jainkoari Jainkoarena"? Ik. Eskatologia; Misioia.

Erreinuaren izaera eskatologikoa eta misiologikoa da, funtsean, historiaren eta munduaren de-sakralkuntzaren eta sekularpenaren oinarri nagusia eta dinamikoena. Horren izaera sakramental --Elizan zerbait historiko bihurtzen dena-- ez da munduaren sekularitasunaren ukapena, eta bai horren berrespena, edozein gauza mundutar eta sekularren *misterio salbagarriarekiko irekitasuna eta gaitasuna ezagutzen eta finkatzen dituelako.

Elizaren beraren konkretizazio eta forma historikoak --leku edo garai jakinekoak-- absolutizatzean edota halako ordena, erakunde eta egoera sozial, politiko, ekonomiko, etab. "sagaratzean" --sakralitzean-- gertatzen da Elizaren sekularpena --ez munduarena-- eta munduaren sakralkuntza.

Baieztapen horiek fedearenak dira gehienbat, eta horien azalpenak, berriz, teologiarenak; ez dira, beraz, erlijioaren fenomenologiarenak edo erlijio konparatuen historiarenak. Zientzia hauen ikuspegitik begiratuta, kristautasun historikoa erlijioaren fenomenoaren barrukoa da. Eta erlijioen historian eta hiztegi guztietan beren leku garrantzizkoa eta nabarmena eduki ohi dute kristautasunak eta horren agerkeriek. Ik. Erlijio-zientziak; Erlijioaren fenomenologia.

Gehienbat ere, *erlijio-antropologiak esan ahal izango du zein den erlijioen artean "garatuena", baina kultur antropologia bera aski ezseptikoa da horrelako balioztapenei buruz; filosofia bakarrik ausartzen da, eta ausar daiteke, erlijio-sistemen artean giza helburuei eta esperientziari hobekien eta osokien zeinek erantzuten dien esaten.

Erlijio-zientziek beste edozein erlijio bezala aztertzea dute kristautasuna; horregatik, kristautasunaren soziologia edo fenomenologia dauden bezalaxe, badaude kristautasunaren geografia, estatistika, historia, etab. ere. *Teologiak ez du kristautasunaren estudioa agortzen. Areago, teologiak beste ikuspegi guzti horietaz baliatu beharra dauka, gaurko gizon-emakumeentzat benetako erantzun egokia izan nahi badu.

Kristautasuna, beraz, erlijio-fenomenoa da: historiak, soziologiak, psikologiak, etab. ek fenomeno sozial eta historikotzat azter dezaketena, aparte fedeko esperientzia pertsonala.

Kristau fededunarentzat bestelako zailtasunik ere badakar kristautasunaren absolututasuna eta unibertsaltasuna aitortzeak: hau da, nola mugatu kristautasunaren alorra. Izan ere, teologiatik begiratuta, kristau-Eliza edo -Elizak, Konfesioak eta sektak baino zabalagoa da kristautasuna, Izpirituak Eliz erakunde eta elkarteetatik kanpo ere badiharduelako. Ik. Kristautasun anonimoa.

Baina beste erlijio-zientzietatik begiraturaz, hemen dagokigunez, kristu-mundua kristautzat jotzen ditugun Elizek, Konfesioek, Sektek, elkarteek eta beren buruak kristautzat dauzkaten lagun guztiek osotzen dute; Kristautasunaren alorra horiek mugatzen dute, horien barruko irakasbide, ihardunbide eta araubideekin eta berorien erakunde, mugimendu, ekintza sozial, kulturazkoekin batera.

II. KRISTAUTASUNAREN DATA ETA DATU NAGUSI BATZUK

Jesus Nazaretekoa dauka kristautasunak bere eratzailatzat. Izena ere harengandik hartu du. Erlijio historiko handien fundatzaileen artean ipintzen badugu *Jesukristo, guztien erdian eta bakarrik gertatzen da bera. *Hinduismoa (K.a. 1800-) ez dugu *fundazio-erlijiotzat hartzen. Ik. Erlijio-fundatzailea.

Kristo aurretik { 1200 (?): Moise (*Judaismoa)
 700-630: Zoroastro (*Zoroastrismoa)
 640-517: Laozi (*Daoismoa)
 540-468: Mahāvīra (*Jainismoa)
 543-479?: Buda (*Budismoa)
 551-479: Konfuzio (*Konfuzianismoa)

JESUKRISTO (4?-33?)

Kristo ondoren { 216-275: Mani (*Manikeismoa)
 570-632: Mahomet (*Islamismoa)


Ia hogei mendetako historia du kristautasunak. Data eta gertaera nagusi batzuk aipatuko ditugu hemen, historia horren marko gisa.

Urtea(k)	Gertaera
-6(?)	Nazareteko Jesusen jaiotza
+30(?)	Nazareteko Jesusen heriotza
36	S. Pauloren kristautzea
49	*Jerusalengo Apostoluen Kontzilioa
70	Jerusalen hiriaren birrintzea
100-	*Gnostizismoaren zabaltzea
49-250	Kristauen jazarraldia, Dezio enperadorearen eskutik
303-305	Kristauen jazarraldia, Dioklezian enperadorearen eskutik
313-	Milango ediktua: Kristautasunaren zilegiztapena inperioan
325	Nizeako Kontzilioa: *Arianismoaren gaitzespena
380	Kristautasuna Inperioko erlijio ofiziala. Urte hauetan latina bihurtu zen mendebaldeko liturgi hizkuntza.
430	S. Agustinen heriotza
498	Clovis, frankoen erregearen kristautzea: bataioa
540	S. Benitoren monako-erregelaren idaztea
596	S. Agustin Canterburykoa Ingalaterran, misio-lanean
622	Mahomet-en Hejira
637	Omar Kalifak Jerusalem hartu
756	Elizaren estatuen eraikuntza (*Elizaren estatuak)
786	Ikonoklasmoaren gaitzespena (*ikonoklasta)
800	Karломagno enperadore, aita santuaren eskutik
826	Misioa Eskandinavian, mendebaldar Elizatik
856	Zirilo eta Metodiodoren misioa eslaviarren artean: eslaviara, liturgi hizkuntza
929	Córdobako kaliferriaren eraikuntza
1010	*Hilobi santuko basilikaren birrintzea
1054	Ekialdetar eta mendebaldar Elizen arteko *zisma
1071	Lehen *gurutzada
1099	Jerusalen gurutzatuek berreskuratu
1182	S. Frantzisko Asiskoaren jaiotza
1234	S. Tomas Akinokoaren jaiotza
1256	Joan Piancarpino-koa mongolen arteko misioan
1378-1417	*Mendebaldeko zisma nagusia
1414-1418	Konstantzako Kontzilioa: Wiclif eta Hus erreformatzaileen gaitzespena
1453	Musulmanek Konstantinopoli hartu. Mosku, "Hirugarren Erroma"

Kristautasuna

1483	Martin Luter-en jaiotza
1493	Misiolariak Ameriketara
1520	Luter eskomikatua: *Erreforma protestantea
1531	*Eliza anglikanoaren zisma
1539	Jesusen Lagundiaren eraikuntza
1545-1563	Trentoko Kontzilioa: Erreforma katolikoa
1542	S. Frantzisko Xabierkoa Indiara
1562-1593	Erljio-gerrateak Europan
1640	*Jansenismoa (Jensenius-en Augustinus liburua)
1638	Kristauen jazarraldi gogorra Japonian
1672	Jerusalengo Kontzilioa: Eliza Ortodoxoak *Kalbinismoa gaitzetsi
1738	Wesley-k metodismoa eratu (*Eliza metodistak; *Errebibalismoa)
1789	Frantziako erreboluzioa
1793	"Arrazoimenaren gurtza" Frantzian
1801	*Konkordatua Frantziaren eta Vatikanokoaren artean
1844	*Bahaismoaren sorrera Pertsian
1869	Vatikanoko I. Kontzilioa
1891	Rerum novarum entziklika
1870	Italiar armadak Erroma hartu
1910	Edinburgh-eko misio-konferentzia, *ekumenismoaren eragilea
1917	Errusiako iraultza
1948	*Elizarteko Kontseilu Ekumenikoa: eraikuntza
1955-1975	Afrikako estatuen independentzia
1962-1965	Vatikanoko II. Kontzilioa
1967-	Asiako erlijioen eragina Amerikan eta Europan
1968	*Askapen-teologia Hego Amerikan
1986	Erljio nagusietako buruzagiak Asis-en bildurik

Kristautasuna Palestinan sortu zen, eta handik Erromako Inperiora hedatu. Gaur egun, mundu osora zabaldurik dago, horren presentzia eta eragina ezberdina bada ere lurralde bate-tik bestera.



Gaurko munduko erlijioen artean kristautasuna da zabalduena eta berak du jarraikari gehien. (Hemengo datuak honako iturri honetatik harturik daude: Quiring, H.: **Legende zur Karte der Religionen und Missionen der Erde**, Evangelische Missionverlag, Korntal-Münchingen, 1979).

1979an 1.219.061.000 kristau ziren munduan (4.000 milioi biztanle guztietatik % 30,48; 1987an atera den **L'état des religions dans le monde**, La Découverte/Le Cerf, liburuaren arabera, 1986an 4.802.965.500 ziren munduko biztanleak; kristauak, berriz, 1.508.040.200 lagun).

Lehen iturriari jarraituz honela zeuden banaturik, kontinenteen arabera:

Ipar Amerika: 187.278.000	Europa (SESB kanpo): 456.694.000
Latin Amerika: 310.245.000	Asia (SESB kanpo): 96.593.000
Afrika: 149.543.000	Ozeania/Australia: 18.708.000
SESB: 38.000.000	

Hiru gorputz edo *Konfesio nagusitan bereizirik daude kristauak: Katolikoak, Ortodoxoak eta Protestanteak (ebanjelikoak, erreformatuak, anglikanoak, etab.); horiez gain, ordea, beste hainbat sekta, elkarte edo Eliza txikiagoak daude, kristau-jatorrikoak, batez ere protestanteetatik sortuak, baina baita ekialdean Kaltzedoniako Kontzilioa (451) onartu ez zutenak (monofisitak, nestoriotarrak, etab.). Honela daude kristauak banaturik Eliza edo Konfesio nagusien artean:

Katolikoak:	731.548.000 (% 60)
Protestanteak:	307.922.000 (% 25)
Ortodoxoak:	102.057.000 (% 8)
Beste Elizak:	79.534.000 (% 7)

Kristau katolikoak eta ortodoxoak, bestalde, hainbat *erritotan daude banaturik. Eliza-ren lehen mendetatik datoz errito horiek, eta sarritan hizkuntzaren berezitasunaz gain, *liturgi moduaren, Eliz diziplinaren eta eraenketa autonomoaren aldetik bereizita daude. Errito latinoak latina erabiltzen zuen erabat Vatikanoko II. Kontzilioa arte; orain, berriz, Herri bakoitzeko hizkuntzak erabiltzen ditu liturgian.

Hauek dira errito nagusiak: Koptoa (alexandriarra), maronita, syriarra (antiokiarra), armeniarra, kaldearra, bizantziarra, ethiopiarra, latina. (Ik. horietako bakoitza "Errito ---" artikuluetan).

III. KRISTAUTASUNAREN SORRERA

Jesus Nazaretokoaren benetako biografia egitea ezinezkoa da. Lau *ebanjelioek ematen digute haren bizitzaren berri; baina liburu horiek ez dira zuzenean biografikoak. Hasierako Eliz elkartean landuriko fedezko testigantzak dira ebanjelioak; Jesusen *piztuerako fedearen argitan emandako haren bizitzaren interpretazioak. Hala ere, ebanjelioek ez dute "fedeko Jesus" soilaren irudia ematen; Jesus historikoan erabat oinarriturik eta sustraiturik daude. Ik. Jesukristo.

Inork ez du seriotan ukatzen Jesus Nazaretokoa izeneko *profeta, ebanjelioetan agertzen dena, benetan Palestinan bizi izan zela, eta Pontzio Pilatoren agintepean *gurutzean hil zutela.

Jesusen bizimodua, jokabideak eta predikua Itun Zaharreko *judaismoaren tradizioaren barruan ulertu behar dira. Itun Zaharreko profeta handien arabera ulertzen du nolabait bere burua, eta horrela ezagutzen dute beraren jarraitzaileek. Erlijio-maisuaren irudia ere badu, eta ikasleak eta jarraitzaileak biltzen ditu bere ingurura. *Profeta eta *maisu gisa, predikari ibiltaria zen Jesus.

Beraren mezuaren muina Jainkoaren Erreinuaren berehalako etorrera izan zen. Areago, iragarri ezezik, nolabait etorria eta beragan betea zela irakasten zuen Jesusek. Jainkoarekiko harreman berria, eta egoera pertsonal eta sozialaren berrikuntza adierazten du Jainkoaren

Erreinuak. Hori hartzeko eta horretan sartzeko prestakuntza eta baldintzak dira: Fedea eta bihotzezko eta bizierazko berrikuntza (**metanoia**). Gizon-emakumeentzat salbamen-mezua da Jainkoaren Erreinuarena. Ik. Jainkoaren Erreinu.

*Parabola izeneko ipuin moduko ugari erabili zuen Jesusek bere mezua adierazteko. Erreimu eskatologiko horren esperantzaren inguruan eratu zen Jesusen inguruan erlijiozko mugimendua berria. Arrakasta handia eduki zuen Jesusen mezuak herri xumearen artean, eta aldi bakoitzeko eta tokian tokiko entzuleez gain, bazituen bere jarraikari --ikasle-- iraunkorrak. Bereziki hamabi aukeratu zituen horien artean, *apostoluak edo bidaliak izenekoak, bere hurbil-hurbilekoak izango zituenak, berarekin bizitzeko eta arreta bereziz eskolatzeko. Horrela elkarte gisakoa eratu zen, gero *Bazko ondoko mugimendu berriaren gidari eta kristau fededunen *elkartearen nukleoa izango zena.

Ba ote zuen prediku horrek *judaismoko mesia-itxaropidearekin zerikusirik? Bere bizialdian ihes egin zion Jesusek bere mezuaren horrelako interpretazioari; *Mesiaren irudiak kutsu politiko handia zuelako nonbait, ez zuen berak horrelako titulurik erabili nahi izan. Baina bera hil ondoren, beraren jarraitzaileek benetako Mesiatzat aitortu zuten Jesus: areago, beraren deitura propio bihurtu zuten Mesiarena (khristos = Mesia).

Judaismoko tradizioari bere atxekimendua erakusten du Jesusek: *Profetak, *legea, *tenplua, *sinagoga, *Liburu santuak, etab. Hala ere, bere garaiko erlijioekera ofizialari buruz kritika zorrotzak jaulki zituen: *apaizen, *errabinoen eta bestelako agintarien, eta *legeriaren eta errituakeriaren, etab.en aurka. Horrexegatik eraman zuten heriotzara, erlijio-eta herri-agintariak elkaturik. Ezarritako ordena erlijiozko-sozial-politikoaren iraultzailetzat salatuz, kondenatu zuten gurutzeko heriotzara.

Jesus hil ondoren, berak sorturiko mugimendua bukatutzat eman zitekeen; horixe gertatu zitzaizen behin baino gehiagotan garai haietan sorturiko antzeko mugimenduei.

Zer gertatu zen, orduan, handik gutxira halako indarrez suspertzeko Jesusen inguruko mugimendu hura? Tartean dago "bazkozko gertakaria" deiturikoa. Haren jarraitzaileek, gurutzeko heriotzaren etsipenaren ondoren, halako berrikuntza izpiritual misteriozkoa --pertsonala eta elkartekoa-- nabari dute; horren oinarri eta eragiletzat Jesus berpiztua aitortzen dute: hots, Jesusek iragarritako Erreinuaren bapateko agertaldizat hartzen dute fenomeno hura, eta berriro bizirik dagoen Jesusi berari egozten diote hori. Horri deritza, hain zuzen, bazkozko fedea. Ebanjelioetan kontatzen dituzten Jaun berpiztuaren *agertaldiak, fede horretan adierazgarriak dira. Ik. Bazkoa.

Esperientzia eta fede horren eraginez elkartu ziren Jaunaren jarraitzaileak. *Mendekosteko "gertakariaren" bitartez, Jaun berpiztuaren Izpituaren gertutasuna eta presentzia bizia adierazi du kristau-elkartearen *fedea. "Gertakari" horretan gain eratu zen, hain zuzen, fededunen elkarte berria, *Eliza, berpiztua zen Jesus hura, Jainkoaren Erreinu mesianikoa burutzera berriro etorriko zelako *esperantza sendotuz.

Fede eta esperantza berri horretatik abiatu zuen kristau-elkarteak hil eta berpiztua zen profeta hari buruzko ulerpen berria: Aurrenik Itun Zaharrean iragarritako *Mesiatzat aitortzen dute, beragan bete bait dira Jainkoaren *agintzari mesianiko guztiak; bazkozko esperientziatik, ikasleek Jesusen bizitzaren eta hitzen berrirakurketa eta berrulerpen osoa egiten dute; beragan ikusten dute Jainkoaren erabateko hurbiltasuna eta presentzia, bereziki *piztueran nabarmendu dena: Jesus Jaunaren Jainko Aitarekiko kidesan horixe adierazten dute Jainkoaren Semea izenaren bidez. Beranduago iritsiko dira Hirutasunaren fedea aditzera eta adieraztera. Ik. Hirutasun txit santua.

Fededun berriei Jesusengan sinestea eskatzen zitzaizen aurrenik. Izatez bi ziren *elkarte berrira sartzeko eskatzen zituzten baldintzak: *Jesukristorenganako fedea eta *bataioa hartzea: fededunen eta bataiatuen elkarte da *Eliza --honela izendatzen bait zuten elkarte berria--.

Jerusalenen eratu zen lehen kristau-elkatea; eta bere autonomia bazuen ere, *judaismoko erlijiozko erakundeetako hiturei eutsi zizkien: *tenpluari, *erdainkuntzari eta bestelako erritoei, otoitzaldiei, etab. Judaismoaren barruko *sekta berriaren itxura zuen. Juduen *zapatuko jaia gordetzen zuten kristauak ere hasiera hartan. Baina aldi berean, bataioaz gain, bere bizitza propioa zuen kristau-elkarteak: Apotoluen irakaskuntza, ondasunen banatzea, ogi-zatitzea edo *eukaristia ospatzeko jatorduak, elkarteko otoitzaldiak.

Jerusalengo erlijio-agintariek ezin izan zuten eraman "sekta" berriaren indarra eta eragina. Kristauen kontrako eta bereziki *apostoluen kontrako erasoengatik, hauek Palestinatik

kanpora abiatu ziren Ebanjelioa zabaltzera eta kristau-elkarte berriak sortzera, aurrenik *diasporako judutarren artean, eta gero *jentilen artean. Gatazka horretako punturik garrantziena S. Esteban kristau-diakonoaren harrikatzea eta hiltzea izan zen.

Elkarte berri horien artean, Antiokiakoa nabarmendu zen batez ere. Hortxe hartu zuten, hain zuzen ere, **kristauak** izena Jesusen jarraikariek.

San Pauloren kristautzea eta jentilen arteko *misio arrakastatsua oso erabakiorrak izan ziren Elizaren etorkizunerako, horrela *sinagogetatik kanpora irten bait zen Ebanjelioaren iragarpena, eta juduen artetik irtenez, jentiletara ireki zen kristau-elkartea. Kristau judaizanteen --bereziki Jerusalemgo elkartearen-- eta kristau helenisten artean gatazka zorrotza sortu zen, ordea, haiek bigarrenei juduen *erritoak, eta bereziki erdainkuntza, ezarri nahi zitelako. Erabateko etena sortu baino lehen, apostoluak Jerusalem biltu ziren Elizaren lehen Kontzilio gisakoan, eta jentiletako kristauei erdainkuntza ez ezartzea erabaki zuten. Horrela, errito horren lekua bataioak hartu zuen eta judaismotik gero eta urrunduago-tzen ari zen kristau-elkartea. Sinagogako erlijioaren eta Elizaren arteko erabateko eten organikoa eta kristautasunaren benetako independentzia, ordea, erromatarrek Jerusalem birrintzean gertatu zen, horrekin batera hango eta Palestinako kristau-elkarteak deseginik gelditu bait ziren.

Apostoluek predikatzen duten lekuetan, fededunen elkarte berria sortzen eta eratzen dute, *lekuan lekuo Eliza gisa. Lekuo *elkarte hauek dira, hain zuzen, kristauen mugimendu zabalaren nukleoak. **Apostoluen Eginak** liburuak kontatzen du lehen urte haietako kristau-Elizaren zabalkundea eta biziera. "Zintzo irauten zuten Apostoluen irakatsietan eta *elkarte-bizieran, ogia zatitzean eta *otoitzean": honelatsu laburbiltzen du behin eta berriro kristau-elkarte haien biziera.

Kristau-elkarte hauen adierazpide bereziena eta behinena etxeetan --ez *tenpluan eta ez *sinagogetan-- egiten zuten *ogia **zen zatiketa** zen, hau da, Jesukristok apostoluekin egindako azken afariaren *oroitzapena eta erritoko *gertaberritzapena. Aipaturiko liburu berean nabarmenduta dagoenez, kristauen artean beren ondasunak banatzen zituzten: "Sinestedun guztiak batasunean bizi ziren; eta zeukaten guztia guztientzat zuten; ondasunak eta gauzak saldu egiten zituzten, eta horiek hartutakoa denen artean zabaltzen zuten, bakoitzaren beharrari zegokionez" (2, 44). Lehen kristauen "komunismo" bikainetsi hori hainbestekoa izan ez bazen ere, *elkartasunaren sena kristautasunaren barru-barrukoa gertatu da historian. Horretxan izenean eta horixe suspertzeko sortu dira, hain zuzen ere, historian zehar hainbat mugimendu, oinarriko elkarteetan senitarteko bitzitza sakontzeko; Eliz erakundearen hierarkismo eta instituzionalismo handiegiaeren kontra batzutan. Fededunen elkartasuna adierazi eta gauzatzu gainera, badirudi beraiek oso bizia zuten esperantza eskatologikoaren edo munduaren azkenaren itxaropenaren ondorioa ere bazela ondasunak banatze hori. Izatez, lehen kristauek berehalakoa zela uste zuten Kristo berpiztuaren bigarren etorrera eta munduaren azkena. Ik. Parusia; Eskatologia.

San Pauloren eta beste apostoluen predikatuaren eraginez batez ere, kristau-Ebanjelioa Mediterraneo inguruko erromatar inperioan laster zabaldu zen. Elizaren zentru nagusia, Jerusalem eta Antiokiatik laster igaro zen Erromara, non S. Pedrok eta S. Paulok kristau-mezua iragarri bait zuten, eta bertan beren bitzitza eman Nerone enperadorearen kristauen kontrako *jazarraldikoan. Orduetik honera Erromako apostolu-aulkiari garrantzi apartekoa aitortu izan dio Elizak, S. Pedro apostoluaren ondorengoen gotzain-hiria denez. Dena dela, horren eskumenaren interpretazio ezberdinetan gauzatuko dira, hain zuzen, kristauen arteko banankeketa handiak historian zehar (ortodoxoek, katolikoek eta protestanteek era ezberdinez ulertuko dute San Pedroren ondorengoen ministeritza Elizaren barruan).

Apostoluen garaian idatzirik gelditu ziren Elizaren fede eta irakatsiaren oinarri izango ziren dokumentuak: Lau *ebanjelioak (S. Mateorena, S. Markorena, S. Lukarena eta S. Joane-na), **Apostoluen Eginak** (S. Lukarena) eta apostoluek (bereziki S. Paulok) idatzirik hainbat gutun gisako edo epistola eta, azkenik, S. Joanen **Apokalipsia**.

Hasierako kristau-elkarteen biziera, dokumentu horietan agertzen den legez, eredutzat gelditu da geroko kristau-Elizarentzat. Mendeetan zehar, haiei begiratu izan die eta haiek hartu ditu abiapuntu eta ikusmiratzat Elizaren barruan sortu izan den hainbat mugimendu eraberritzailek, batez ere geroko Eliz instituzioen puztearen eta gogortzearen kontra jarritz lehen alditako bizieraren xotiltasuna eta freskotasuna.

IV. ELKARTEA ETA ERAKUNDEA

Jesusen dizipulu eta *apostoluen nukleotik hasita, *elkarte gisa eratu ziren, bada, hasieratik "bazkozko gertakariaren" esperientzia bizi zutenak: Jaunaren *piztuera da horien arteko erreferentzia nagusia. *Mendekosteko "gertakaria" --Jaunaren izpirituua hartu zutenekoa-- jo izan du kristau-elkarteak bere erakuntza eta fundazioko gertakaritzat. Oinarri eta edukin izpirituala du funts-funtsean kristautzat beren elkarreak: Jaunaganako fedezko atxekimendua eta Jainkoaren Erreinuari dagokion bakoitzaren bihotz- eta biziberrikuntza.

Baina elkarreak badu berehala bere adierazpide ageriko zenbait. Hasteko, *bataioaren erritua, elkartera sartzeko eta *fedearen eta *bihotz-berrikuntzaren seinaleztat. Horixe bihurtu zen kristau-elkartearentzat *sarbidapen-errito nagusi. **Apostoluen Eginak** liburuaren arabera, hasierako kristau-elkarteak biltzen zen apostoluen irakatsiak entzuteko, *otoitzera-ko eta *eukaristia ospatzeko ("ogiaren zatiketarako"). Bestalde, fededunen elkarrearen gidaritzat apostoluak agertzen dira hasieran, Jaunaren bizitzako testigu hurbileko direnez: haren mezuaren zabaltzaile eta elkarrearen irakasle dira horiek, eta elkarrearen eraentzaile ere bai. Laster aukeratu zituzten beraien laguntzaile edo ordezkokoak ere, *diakono izenarekin, elkarrearen izenean hainbat zerbitzu betetzeko.

"Eliza apostolutarrak" lehen mendea ia osorik hartzen du. Kristau-elkarte apostolutarren instituzionalpena ez zen izan erabakarra leku guztietan; baina hainbat ministeritzen eraketa nabarmendu zen: *Apostoluak, ebanjelizatzaileak, irakasleak, *diakonoak, begiraleak, *presbiteroak (zaharrek) Jerusalem.

Aipaturiko *elkartasunaren goiburua elkarrearen izenean bertan nabarmentzen da: ***Eliza** (grezieraz **ekklesia** = batzarrea) du, hain zuzen, bere izen propioa. Elizarekin batera, izan ere, bere-bereak egingo ditu *senitarteak, *elkarteak, *batzarrea, kongregazioa eta antzeko deiturak.

Elkarrearen zentzua nabariago geratzen da oraindik **Eliza** izenaren eboluzioan bertan. Hasieran leku bakoitzean otoitzera-ko edo eukaristia ospatzeko biltzen den batzarreari deritza Eliza, eta ondorioz, lekuan lekuko kristau-elkarteari: Korintoko (Korinton dagoen) Eliza, etab. Elizaren kontzeptu honek nolabait bizirik iraun du kristautasunaren tradizioan: Eliza deritza kristau-familiari (**ecclesiola**), herriko edo auzoko kristau-elkarteari (*parrokia, kongregazioa) eta bereziki *diozesiari (Eliza Katolikoan). Lekuan lekuko Elizaren edo Eliza partikularren kontzeptua bereziki bizia da misio-lurraldeetan, "Eliza berriak" sortzean eta eratzean. Ik. Misioak; Eliza partikularra.

Eliza unibertsalaren edo Herri guztietako eta munduzabaleko kristau guztien batasuna eta erakundearen kontzeptua geroztikakoa da: Elizen Eliza gisa ulertzen dute kristauak hori. Eliza lokalak edo partikularren arteko adierazpidezko berezitasunei eta beraien arteko lotura instituzionalei buruzko eritziak eta irakatsiak ugariak dira kristautasunean: horien inguruan sortu izan dira, hain zuzen ere, sarritan *zismak eta kristau-Konfesio ezberdinak.

Bataioaren bidez kristautu diren denek dute funtsean egoera berdina Elizan: *Jainko-Herria osotzen dute. Gero etorriko diren bereizkuntzak: *laikoak eta *klerikoak, *monakoak eta *mundutarrak, *erlijiosoak eta sekularrak, etab. funtsezko berdintasun hori errepetatuta behar dute. Alde horretatik *klerikalismoa edo apaizen protagonismoa (edo monopolioa) Jainkoaren Herriaren funtsezko egituraren okerkuntzat jo izan da. Eliz hierarkiak protagonismo osoa hartzeko eduki dezakeen joeraren aurka, *karisme buruzko irakatsiak garrantzi handia eduki du kristautasunaren historian: Karismak dira, izan ere, Eliz elkartean edonork Izpiritu Santuarengandik hartu dituen dohainak, elkarrearen zerbitzurako, eta *hierarkiaren-gandik ez datozenak; horrela Izpiritu Santuaren beraren eragina eta protagonismoa nabarmentzen dira elkarrearen barruan. Kristau bakoitza da, orduan, Jainkoaren *hitzen lekuko, bere *fedea aitortuz eta zabalduz (***profeta**), Jainkoaren salbamen-ekintzen lekuko, bere munduko bizitza santutuz (***apaiza**), Jainkoaren *maitasunaren lekuko, bere senideak Elizan eta munduan zerbitzatzuz (***erregea**).

Eliztar bakoitzaren nortasunaren eta Eliz elkarrearen elkartasunaren gain, Elizaren nolabaiteko erakundea eta horren instituzionalpen "historikoren" bat kristau-Konfesio gehien-gehienek eta nagusi denek onartzen dute, Elizaren beraren izaera sakramental eta historikoren arabera. Baina *Konfesio batetik bestera erakundezko aldeak handiak dira sarritan.

Kristautasunaren instituzionalpenaren funtsezko datua *Biblia bera da, jainkozko *agerkundera idatziz jarria. Bi parte handitan banatzen da kristautasunaren Eskritura Santua: ***Itun Zaharra**, judaismotik datozkion liburu santuak, eta ***Itun Berria**, kristautasunaren eskritura santu espezifikoak, lau *ebanjelioek, epistola hainbatek, **Apostoluen Eginak** liburuak

eta **Apokalipsia** liburuak osotzen dutena. Kristau-Bibliaren *kanona eratzek bere prozesu aski luzea eduki zuen (aurrenik dokumentuen idaztea, gero horien finkatzea eta horien onarpena Elizaren aldetik). Alde txikiak daude Eliza eta Konfesio ezberdinen artean Bibliaren kanonari buruz; handiagoak dira testu horien adierazpenari berari eta adierazleari buruzkoak; bereziki Eskrituraren eta Eliz *Tradizioaren arteko harremanari buruzkoak.

Hiru aldetara bana daiteke kristautasunaren instituzionalpenaren prozesua, Elizaren funtsezko hiru dimentsioen arabera: **Kredoa** eta irakasbidea; ***sakramentuak** eta liturgia; ***ministeritzak** eta elkartearen eraenketa.

1. Kredoa

Sinesbideari eta *irakasbideari dagokionez, kristauen sinesteak berak sartzten dira, baina batez ere horiek komunikatzeko sistemak: *katekesia, Eliz irakaslegoa, *teologia, etab.

Eliza gehienek onartzen dituzte lehen sortzi Kontzilio ekumenikoak, benetako fedearen azalpen itzaldun gisa; baita horietatik sortutako *fede-aitormenak edo *kredoak ere. Horiei deritzate, hain zuzen ere, Kontzilio handiak, Eliza Handi osoak egindakoak. Monofisitiek eta nestoriotarrek, berriz, ukatu egiten dituzte orokorki Kaltzedoniako Kontzilioaren aurretikoak ere. Ik. Monofisismoa; Nestorianismoa.

Eliza Katolikoak beste hamairu *Kontzilio onartzen ditu ekumenikotzat; Eliza Ortodoxoak, berriz, bere Kontzilioak egin izan ditu, baina ekumenikotzat onartu gabe, Eliza banandua dagoenez. *Protestantismoak ez du Kontzilioaren antzeko irakaslego-organo erabakitzailearik. Hala ere, *Komunio anglikano osoarentzat *Lambeth-eko Konferentzietan onarturiko erabaki doktrinalek itzal handia dute. Era berean, *Elizarteko Kontseilu Ekumenikoak zenbait puntu doktrinal "definitzera" jo ohi du, bertako kide diren Eliza edo Konfesio guztientzat.

Katolikoek, Elizaren irakaslegoari ematen diote garrantzi handia, fedeko irakatsien araubide gisa; bereziki Kontzilio ekumenikoari eta aita santuari, okertezintzat hartzen bait ditu horiek fede katolikoak, beren aginte osoz fedeko egiaren bat xedatzen edo definitzen dutenean.

Protestantismotik irtendako Elizek ***konfesioen** bidez gidatu nahi izan zuten elkarkideen sinemesna; edota sektaren sortzailearen liburu sakratua izan ohi da sinemen-batasunaren oinarria. Dena dela, aipaturiko "sinestara" horiek sarritan indargabeturik edo daude; eta protestanteen artean bereziki, irakasbideari dagokionez, ez dago gida edo irakaslego finkorik, *Bibliaz aparte; horregatik Elizen eta elkartearen artean eta horien barruan ere ezberdintasun nabarmenak izan ohi dira, fedezko adierazpenetan.

2. Sakramentuak

Sakramentuen inguruan dago eraturik kristau-Eliza denen gurtza-sistema ofiziala (*elizkizunak edo *jainkozko betekizunak), nahiz eta batzutan horietako asko *sakramentuetatik urruti xamar agertu. Bestalde, kristautasun herritarrek sarritan bere gurtzazko eta erlijiozko adierazpideak sortu izan ditu, ofizialek urrutitxo sarritan.

Kristautasunaren oinarritzko *erritua, Eliza guztietan, *bataioa da. Beraren bidez sartzten da fededuna kristau-elkartera. Bataioa egiteko formak, berriz, diferenteak badaude ere, kristau guztiak funtsean bat datoz horren balioa eta zentzua baieztatzean.

Bataioarekin batera, beste sakramentu bat dago, kristau-Eliza guztiek elkartereñ bizi-tzaren erdi-erdian ipintzen dutena: *Eukaristia. Baten batek bataioa oinarriarekin eta eukaristia giltzarriarekin konparatu ditu. Eliza protestanteak bereizi egiten dira beste Elizen aurrean, eukaristiaren interpretazioari buruz.

Eliza Katolikoak, Ortodoxoak eta Anglikanoak beste zenbait zeinu eta erritori ere sakramentutasuna aitortzen die: *Sendotzari, *ordenazioa, *ezkontzari, *aitortzari eta *gaixoen oliadurari. Anglikanismoa, hala ere, ez dago oso definitua horien sakramentutasunari buruz.

Kristautasunaren gurtza urtebeteko ziklotan antolaturik dago; bertan banatzen dituzte jai nagusiak, kristau-misterioak ospatzekoak. Horren erdigunea *Bazkoa da, non Jesukristoren heriotza-piztuerak ospatzen bait ditu.

Urteko erritmoaz gain, asteroko erritmoa ere badu kristau-Elizen gurtzak; *igandea edo *domeka du erdigunea, eta normalean fededunen *batzarrea egiten dute, bereziki eukaristia ospatzeko. Kristautasunaren eraginez, mendebaldar zibilizazioan igandea jaiegun izan ohi da.

Kristautasuna

Ebanjelioak fededunei ipintzen dien agindua, etengabe otoitz egitekoa, nolabait konkretatzeko, kristau-tradizioak ***orduen liturgia** eratu du, egun osoa halako otoitzaldien inguruan antolatzeko. Apaizek eta erlijiosoez betetzen dute gehienbat orduen liturgia. Fededunek orokorki goizeko eta arratseko eta jatorduetako otoitzen bidez jartzen dute eguneroko erritmo "erritoxkoa".

Katolikoek eta Ortodoxoek *santuen, eta bereziki Ama Birjinaren, gurtza landu dute, urtean zehar horietako bakoitzaren *oroitzapena eginez, horien izenpean edota zaindaritzapean ipiniz lekuak, elizak, elkarteak nahiz lagunak, horiek halako elizatan edo *santutegitan ohoratuz, etab. Ama Birjinaganako jaiarak eta gurtzak garrantzi berezi-berezia eta balio teologiko apartekoa du horientzat. Ik. Dulia.

3. Ministeritzak

*Ministeritzari buruz ezberdintasun handiak daude Elizen artean: horretxek baldintzatzen du, baita ere, Elizen erakundea. Eliza Katolikoa hierarkikoa, unitarioa eta zentralistena da; aita santua aitortzen du Elizaren buru bakartzat, *Jesukristoren ordezkotza aitortzen dio, jurisdikziozko lehentasun eta guzti; beste Eliza guztiek ez diote horrelako lehentasunik ezagutzen aita santuari. Eliz hierarkian *apezpikuak daude, apostoluen ondorengotzat; *presbiteroak eta *diakonoak, apezpikuaen laguntzaile gisa.

Aita santuaren jurisdikziozko lehentasuna ez onartzean datza, funtsean, Ortodoxoen bereizkuntza; Eliza Ortodoxoetan *patriarkak dira buru gorenak; elkarrekiko, berriz, autonomoak dira patriarkak; gainerantzean, ministeritzaren egitura Eliza Katolikoaren antzekoa da: apezpikuak, presbiteroak, diakonoak.

Protestantismotik sortutako Elizetan eta elkarteetan ezberdinak dira ministeritzak, horiek episkopalianoak, presbiterianoak ala kongregazionalistak diren kontu. Komunio anglikanoak du, bakarrik, ekialdeko patriarkatzaren antza, erakundeari dagokionez.

Eliza Katolikoan eta Ortodoxoan hierarkiaren kontzeptua apaizgoaren gain dago: horren betetasuna apezpikuak du; beheargoko ministroek harengandik dute beren ministeritza eta horretarako eskumena. Jainkoaren eta fededunen bitartekoa da *apaiza. Protestantismoak ez du onartzen horrelako apaizgoaren kontzeptua. Elizako ministroak edo *artzainak elkartearen eragintza eta *ardura du* Elizaren barruan, baina ez bitartekotza, protestanteen ustez. Horrela interpretatzen dute hasierako Elizako presbiteroen edo apezpikuen (**episcopi** zirelakoen) misioa.

Elizaren erakundea azaltzean ezin daiteke ahanzi historian zehar *monakoek eta *erlijiosoez bete izan duten lekua eta eginkizuna. Kristautasunaren hasierako mendetan jarri behar da monakotzaren jatorria, zenbait kristau munduko eginkizunetarik aparte bere kristau-esperientzia bakardadeko eta *abstinentziako bizieran eramatea erabaki zuenean.

Norbaitzuren biziera hori Elizako bizi-egoera normaldua izateko bideak monakotzako erregelek ireki zituzten: S. Basiliorena ekialdean eta S. Agustinenena eta S. Benitorenena mendebaldean dira aipagarrienak antzinako mende haietan. *Monakotza ez da berez Elizaren erakunde hierarkikoaren parte; baina kristautasunaren erakunde historikoan bertan garrantzi eta eragin handia izan du. Monakotzaren mugimenduak eta erakunde ezberdinek gaur arte iraun dute, beren barruko erreforma ugari eta guzti.

Monakotzatik aparte, bereziki Erdi Arotik gaur arte, hainbat elkarte sortu eta eratu da kristautasunaren barruan, gaur egun orokorki *erlijioso-institutuak esaten direnak. Gehienetan gizonezkoenak ala emakumezkoenak dira, historian inoiz mixtoak egon badira ere. Sañritan Eliza barruko eraberrikuntzazko mugimendu gisa, elkartasunezko biziera sakonagoa egiteko edota gizartearen nahiz Elizaren halako egiteko garrantzizkoen bati erantzuteko sortu izan dituzte horrelako institutuak.

Kristau-biziera gisa erlijiosoenak duen balioaz eta berezitasunaz gain, nabarmentzekoa da hemen horien institutuen garrantzia Elizaren erakuntza osoan. Horregatik ere horien biziera oso arauturik dago batez ere Eliza Katolikoan.

V. KRISTAU-FEDEA ETA IRAKASBIDEA

Honela definitzen du *Elizarteko Kontseilu Ekumenikoak bere burua: (Amsterdam-eko Batzarrea, 1950): "Elizen munduzabaleko Kontseilua osotzen dute Jesukristo Jainko eta Salbatzailetzat aitortzen duten Elizek".

Gutxieneko *fedee-aitormena da hemengo hau; dena dela, kristautasunaren erdigunea ikutzen du; izan ere, kristau fededunentzat kristautasunaren fundatzailetzat aitortzen dutena ez da erlijio-maisu eta eratzaile soila; bera bihurtu da fedearen muin nagusien: hortik abiatuz garatu zen kristau-fedearen edukina.

Hasieratik kristau-elkarteek halako formula-bildumetan --*kredo edo "sinbolotan"-- bildu izan dute, eta horiek errezitatu izan dituzte, bere identifikazio gisa, bakarrean nahiz elkartean. Zaharrenetarikotzat jotzen dutena *Apostoluen sinboloa da, gaur egun kristau-Eliza handi gehienek baterabidean oinarritzat hartuko luketena.

Jesukristok berak ez zuen horrelako sineskaien formulaziorik eman. Berak zabaldu zuen Ebanjelioa ez zen irakasbidezko sistema. Mezua zabaldu zuen *Jesukristok; horren muina Jainkoaren Erreinua edo erregetza zen.

Mezu "berri" horren marko doktrinala *Itun Zaharrekoa da funtsean: Ebanjelioan agertzen denez, Jesus ez da etorri "Legea eta Profetak" (Itun Zaharraren sintesia) kentzera, horiek osabetetzera baino (ik. Mt 5,17).

Egiazko Jainko bakarra Jahve da: Jainkoaren absolututasun eta unibertsaltasunak erabateko baieztapenaren indarra hartzen du *Itun Berrian. *Mundua, berriz, Jainkoaren eskuetan dago; bera da diren guztien egilea eta guztien jauna. Itun Berrian ez dago inolako *dualismoaren izpirik, ez inolako *demiurgorik, Jainko bakarraren menpe erabat ez legokeenik. Baina Itun Zaharreko Jainkoa, Jesukristok aitortzen duena, ez da urrutiko Jainkoa, oso hurbilekoa baizik: Herriaren eta munduaren historian ari dena, horiek *askapenera eta *salbamenera dararamatzana.

Jainkoaren Erreinuarena askapen- eta salbamen-mezua da; gizaki guztiei zuzendua, nahiz eta Jesus bera israeldarrei mintzatu zuzenean. Gizon-emakumeen Jainkoarekiko eta haien arteko harreman berri gisa definitu daiteke Jainkoaren Erreinua, bereziki parabolaren bidez azaltzen duena; Jainkoagandik gizon-emakumeek hartzen duten dohaina da Erreinua. Horretarako baldintza fedea da, Jainkoarenganako eta Berak Bidalitakoarenganako barne-atxekimendu erabatekoa, alegia.

Erreinua "hartzearen" ondorioak, berriz, gizabanakoarenak dira, batetik, eta gizataldekoak, bestetik: **Metanoia** (gogoberrikuntza) da Erreinuaren lehen fruitua; eta barneko *bihotz-berrikuntzarekin batera, aldaketa morala edo biziberrikuntza. Jainkoaren Erreinua "hartzek" badu, ordea, inplikazio sozialik ere: hau da, elkarrekiko harreman ez-zuzenak zuzentzea eskatzen du, *justiziaren eta *maitasunaren araberatzea, alegia. Ik. Jainkoaren Erreinua; Berriztapena, 1.

Diren guztien eta bereziki gizon-emakume eta Herri guztien Jainko bakarraren irudia *Aitarena da Jesukristoren mezuan: Aita, maitasunez eta urrikaltasunez betea. Areago, "Jainkoa Maitasuna da" esango du S. Joanekek bere epistolari (1 Jn 4,8); eta Jesukristo bera maitasun horren lekuko agertzen da ebanjelioetan.

Horregatik gizon-emakume guztiak dira elkarren *senideak, ez bakarrik arraza, tribu edo Herri berekoak. Jesusek predikatzen duen *maitasunak, beraz, unibertsaltasunaren neurriak ditu; *etsaiengana ere zabaltzen da. Jainkoaganako eta elkarrenganako maitasun unibertsalera biltzen ditu Jesusek agindu guztiak eta *lege osoa bere jarraikarientzat.

Ebanjelioak berehalakotzat jotzen du Jainkoaren Erreinuaren etorrera; areago, Jesusekin berarekin benetan etorritzat adierazten du. Horrekin inauraturik zegoen azken garaia. Ebanjelioan bertan eta apostoluen lehen urtetako idazkietan ageri denez, munduaren azkena berehalakoa edo oso hurbilekoa zen. Jainkoaren Erreinuaren izaera eskatologikoa, Jesusentzat eta lehen kristaudentzat ia esperientzia zena, bizi-bizia, zerbait estruktural bihurtuko da, Jesusen azken etorrera eta munduaren amaia luzatu egiten zirela ikustean eta Eliza munduan finkatzean. Horrekin batera, Elizaren izaera misiologikoak, edota Ebanjelioa Herri guztiei aldarrikatzeak, zentzu historikoa hartu zuen. Elizaren historikotasunaren (mundutartasunaren) eta eskatologikotasunaren ("mundu berrian" bere azken itxaropena jartzearen) arteko dialektikak eta bizipenezko tirabirak kristautasunaren historia osoa eta beraren barruko hainbat borroka eta krisialdi markatuko dituzte.

Jesusen *piztuerarekin, Bera bihurtu zen jarraitzaileen fedearen erdigunea, eta apostoluen predikuarren muin. Izan ere, uste dute Haren piztueraren bidez berak iragarritako Erreinuak bapateko agertaldia egina duela munduan. Jesus Profetarengan "profetek iragarritako *Mesia ezagutzen dute fededunek; eta Jaun aitortzen Bera, piztueraz Jainkoarekin hurbil-hur-

bileko eta ia bat bihurtu dela uste bait dute. Fede horretatik abiatzen dute, hain zuzen ere, kristauak Eskritura Santuen eta beren fedearen adierazpen eta teologiazko gogoeta berria.

Gogoeta hori molde berritan formulatzera behartuko ditu kultura grekoak, Eliza bertara zabaldu eta hor kokatzean. Apostoluek beraiek, eta bereziki S. Paulok abiatu zuen kristautasunaren birformulazio hori; Itun Berrian bertan, beraz, *judaismotik datorren kristau-mezuarien *kulturaztapen berria gertatzen da. Geroago etorrriko dira kristau-teologo handiak, grekoak eta latinoak, eztabaida kristologiko eta trinitario luzeak; eta Kontzilio handiak, kristau-irakasbidearen puntu nagusien formulazio dogmatikoak emango dituztenak, bereziki filosofia eta pentsaera greko-latinoaz baliatuz.

Lehen mendetako prozesu doktrinal horrek bideratuko du ondoko kristautasunaren irakasbidearen eta teologiaren historia, bi aldetatik: ondoko prozesua mugatuz eta nolabait lotuz, batetik, eta teologiak eta kristautasun osoak Herri eta garai ezberdinetako filosofia eta kulturatara irekitasunez moldatzeko eta horiek beretzeko eredia emanez, bestetik.

Hemen ez dugu kristau-fedearen eta irakasbidearen (*dogmen eta *teologiaren) historia luzea azalduko; baina era sistematiko eta eskematiko irakasbide horren puntu nagusiak aipatuko ditugu, Eliza ezberdinen ezberdintasunetan gehiegi sartu gabe. Sei kapitulutan edo banatuko ditugu: Jesukristo; Hirutasun txit santua; Eliza; Gizakia; Kristau-biziera; Gero-rengoak.

1. Jesukristo: Jainko-gizona

Jesus *Profeta, *Mesia eta *Jauna Jainkoaren Semea da. Azken deitura honek, hasieran ez zuen esanahi ontologikorik, eta Jainkoarekiko hurbiltasuna eta nolabaiteko kidesasuna adierazten zuen. Bazkoko esperientziaren gogoetaren bidez, berriz, Aitarene eta Semearen batasuna ezagutzera iristen dira kristauak. Jesus, beraz, Jainko Aitarene jainkozko Semea da, Haren Hitza edo Logos betidanikoa, gizon egin dena. Jainko gizon egina da, beraz, *Jesukristo, Jainkoaren zerizana eta gizonaren zerizana pertsona bakarrean batu dituen (batasun hipostatikoa). Ik. Jainkoaren Semea.

Bere Semea mundura bidali eta gizon egitean (*gizakundea), gizon-emakume guztientzako bere salbamen-asmoa bete nahi izan du Jainkoak. Jesukristo da, beraz, guztien salbatzaile; eta beraren gurutzeko heriotza Jainkoari gizon-emakume guztien bekaturen ordaintzat eskainitako *opari gisa ulertzen du kristau-fedek, S. Pauloren adierazpenari jarraituz.

*Piztueraren bidez jainkozko aintzaz beterik dago Kristo, eta gizon-emakumeen juez eta saritzaile bihurtua. Munduaren amaia Jesukristoren azkenburuko etorrera gisa irudikatzen du kristau-fedek: horrekin batera gertatuko da munduaren berrikuntza eta gizon-emakume guztien piztueria, eta kosmos osoa beraren historia osoarekin Jesukristo Jaunaren eskuetan jartzea. Ik. Parusia.

Jesukristo berpiztu eta aintzatsuak bitartean munduan eta bereziki Elizan jarraitzen du era misteriozko eta sakramentalez (*eukaristia), *Elizarekin eta graziadun bakoitzarekin bat eginda. Ik. Kristoren gorputza, 2.

2. Hirutasun txit santua: Jainkoaren misterioa

Izen horren bidez adierazten du kristautasunak Jainkoaren *misterioa. Itun Zaharrean bertan sineste horren aztarnarik aurkitu uste du teologiak. Baina batez ere Itun Berrian eta Bazko ondoko kristauen fedezko esperientzian iritsi dira horiek Hirutasunaren misterioa formulatzera.

Fededunek Jesukristo berpiztuarengandik hartu duten jainkozko Izpirituak bere eragin propioa eta bere nortasuna erakusten du Elizan, kristauen sinestez. Jesusek "bidali" egin du Jainkoaren Izpiritua: beraz ez da Haren "arnasa" edo eragin hutsa. **Norbait** da Jainkoaren Izpiritua. Ik. Izpiritu Santua.

Horrela iristen dira Jainkoaren Hirutasuna formulatzera: Aita eta Semea eta Izpiritu Santua, lehen kristauen *bataiokoan erabiltzen duten formularen arabera. Horren formulazio dogmatikoa: "Jainko bakarra zerizanean eta hiru norizan bereiz eta izate berekoak", eztabaia teologiko luzeren ondoren lortuko dute lehenengo lau Kontzilio nagusiek.

3. Eliza: Jainkoaren herria

Bataiatuen *elkartea da Kristoren Eliza. Jainkoaren Erreinuaren adierazgarria eta *sakramentua da, baina ez da horrekin berdina, munduan eta historian bidari den bitartean. Jainkoaren Erreinuaren zerbitzutan dago Eliza munduaren erdian, *Jainko-Herri gisa.

Jesukristogandik hartu du Elizak *misio unibertuala, Herri guztiei et gizon-emakume guztiei *Ebanjelioa zabaltzekoa et horren zeinu, lekuko eta mezulari izatekoa.

Kristauen fedearen arabera, Eliz elkartea ez da gizon-emakumeen batasun soila; Jesukristogandik harturiko Izpiritu Santuak batzen eta bizierazten du eta eragiten dio. Horregatik Eliz elkartea ezezik, Eliz misterioa erabiltzen du teologiak horren izera definitzeko, eta "Kristoren gorputz mistiko" gisa irudikatzen du. Baina, bestalde, gorputz soziala da Eliza, bataitu guztiek osotua, bere *errito eta adierazpide sakramentalak dituen, eta bere *ministerizat dituen, elkartea gidatzeko eta eraentzeko.

Eliza ez da munduko edo historiako inolako gizarterekin, Herrirekin, kulturarekin edo ordena politikorekin berdintzen, historian zehar batzutan horrelako itxura eman baldin badu ere. Ik. Kristandatea.

4. Gizakia eta mundua: askapena eta salbama

Diren guztiak bezala, gizakia ere Jainkoak sortua da; Bere irudira egin du Jainkoak gizakia eta izadi osoa bere eskuetan utzi du, horretaz baliatu eta landu dezan: bera da erantzule munduaren martxan.

Lehen gurasoek egindako *bekatuaren ondorioz gizon-emakume guztiak jaiotzen dira bekatuan, Jainkoaren etsai; denak daude, beraz, egoera horretatik atera eta *salbamenaren beharrea, Jainkoarekin adiskidetz. Jainkoagandik beragandik bakarrik etorri daiteke salbama; *misio horixe bete du, hain zuzen, Jesukristok, gizon-emakume guztientzat eta misio bera eman dio Elizari: salbama iragarri eta horren sakramentu izatea. Ik. Jatorrizko bekata.

*Salbamen-erlijioa da kristautasuna. *Grazia deritza kristau-teologian gizaki bakoitzak hartzen duen salbameneko dohainari. Jainkoaren maitasun urrikaritsu eta salbagarriaren adierazpena da grazia, gizakia Jainkoaren adiskide eta Harentzako maitagarri bihurtzen duena. Horregatik *grazi erlijioa da kristautasuna.

Jainkoaren *maitasunaren eta graziaren eragina ez da Elizaren edota kristautasunaren barrutikoa bakarrik; gizon-emakume guztiei eskaintzen die Jainkoak bere maitasunezko grazia.

Gizakiaren *askapen eskatologikoa edo trazedentea --salbama-- askapen historikoaren bidean ari da gertatzen: horren betekuntzari eta helburuari askapen osoa deritza kristau-hizkeran. Gizakiaren mundua gizartetzeko eta gizartean *justizia lortzeko, askatasuna sakontzeko eta maitasuna zabaltzeko, leialtasunez bere lana, ahalegina eta bizitza ipintzen dituen salbamenaren bidean doa.

5. Kristauaren izaera eta biziera

Zein da kristauaren berezitasuna eta berberatasuna?

Jesukristogan *fedea jarri duena da kristaua; fede horren lekuko da bera munduan. Kristautzearen zeinu edo errito sakramentala *bataioa da. Horren bidez bekataria justifikatu edo zuzenetsirik gelditzen da Jainkoaren aurrean, Haren seme eta adiskide bihurturik. Bestalde, *sakramentuak dira Elizan graziaren zeinu eta bide nagusiak.

Graziaren bidezko justifikazioa santutasuna ere esaten da. Santutasun horixe bere bizitza osoan bizitzera, gauzatera eta burutzera deitua dago kristaua, bere edonolako bizieratan eta lanbidetan. Jainkoarekin bat izatea da kristau-santutasunaren helburua. Ik. Santua.

Kristauen bizierak eta lanbideak oso ezberdinak izan daitezke, *deieraren arabera, baina guztiek dute, nork bere erara eta bere lekutik, Jainko zuzenaren, askatzailearen eta maitatzailearen lekuko eraginkor izateko erantzukizuna munduan eta gizartean. Ik. Jainkoaren deia.

Bertute teologalak dira kristauaren bereizgarriak eta "ezaugarriak" behinenak: hau da, *fedea, *esperantza eta *maitasuna. Jainkozko bertutea da kristau-maitasuna, gizon-emakume

guztiengana eta etsaiengana ere zabaltzen dena. Elkarrenganako maitasuna irakatsi zien Jesu-sek berak apostoluei beraren jarraitzaileen ezaugarritzat. Ik. Bertute teologalak.

Ik. Etika eta erlijioa; Mendigaineko predikua.

6. Gerorengoak: Piztuera eta betiko bizitza

Kristautasunaren sinestez, gizon-emakumeen helburua ez da historia honetan, mundu honetan eta bizitzaldi honetan agortzen: *Heriotza ez da gizakiaren azken puntua.

Betiko bizitza da gizakiaren helburua, hau da, Jainkoarekin bat egitea eta horrela bere betiko zoriona lortzea: horri deritza *zerua. Hor betetzen da Jainkoaren salbamen-asmoa, gizon-emakume guztientzako. Hala ere, *bekatuan eta Jainkoaren etsai hiltzen denak "betiko heriotza" du bere patua: bere helburuarekiko porrota eta zoritxarra. *Ifernua deritza egoera horri. Heriotzakotan bertan gertatuko da zerura salbatuen eta ifernura galduen arteko bereizkuntza Jainkoaren aurrean: horri deritza Jainkoaren *judizioa teologian. Ik. Betiko bizitza; Betiko heriotza.

Gizakia berez gizartekoa eta mundutarra denez, bakoitzaren azken helburua eta zorion beteak ez dira burutzen, gizadiarekin eta munduarekin batera ez bada. *Munduaren azkena, kristau-fedearen arabera, ez da izango horren suntsitzea, eta bai horren berrikuntza trazendentea, teologiak "mundu berria" deitzen duena. Horrekin batera gertatuko da gizon-emakumeen *piztuera, gorputzaren transfigurazio edo antzaldaketa gisa. Horrela gizaki osoarena izango da betiko zoriona, berak landu duen munduarekin eta historiarekin, eta salbaturiko beste gizakide guztiekin batera. Ik. Mundu berria.

Kristautasunarentzat munduaren azkenak ez du adiera kosmiko soila; kristologikoa du: hau da, Jesukristoren salbamen-ekintzaren burutzapena izango da, beraren ospearen agertaldian edo *parusian.

VI. KRISTAUTASUNAREN HOGEI MENDEAK

Ez dugu emango hemen kristautasunaren historia luzearen mendez-mendeko laburpen gisakorik. Horren irakurketa eskematikoa besterik ez dugu eskainiko. Historiaren hari nagusia nobabait adierazita gelditu da kristautasunaren data eta datu nagusiak ematean.

Edozein erakunde eta elkarte zabalek eduki ohi ditu bere krisiak; kristautasunak ugari eduki ditu historian zehar. Esan daiteke, esan ere, horrelako krisialdi nagusiek ematen ditutela kristautasunaren historia irakurtzeko marko egokietako bat.

Bistan da, krisia hitza ez dugula hemen berorren okerrerako konnotazio soiluz ulertzen. Edozein erakunde edo elkarteren krisialdia barneko edo inguruko egoera berriari moldatu beharrik ekarri ohi du normalean. Alde horretatik bizitasunaren seinalea da krisia. Tirabira du krisialdiak bere adierazgarriak nabarmena. Ondorioz etena ere ekar dezake (kristautasunaren historian ugariak dira etenak edo zismak); normalean biziberrikuntza eta indarberrikuntza etorri ohi da krisialdietatik.

Kristautasunaren --Kristoren Elizaren-- historiako krisialdirik nagusienak "berberatasun-krisiak" dira; hau da, Elizaren beraren izaera jokoan ipintzen dutenak: Funtsean, Elizaren krisia eskatologikoa eta misiologikoa. Horrek dakar erakundearen eta elkarrearen bere burua berriro eta era berriz definitu beharra, egoera eta inguru berriaren barruan eta bere jatorrizko eta funtsezko izateari leial izanez. Hala ere, berberatasunezko krisialdi guztiak ez dira berdinak izaten, horietako bakoitzean erakunde eta elkarrearen dimentsioetako bat egoten bait da gehienbat krisialdian jarria. Horregatik kristautasunaren historian zeharreko krisialdiak ez dira berdinak izan, eta ondorioak ere ezberdinak izan dira. Hala ere, krisiaren sustrai eta sintoma nagusiak alderdietako bat ikutzen badu ere, erakunde edo elkarrearen gorputz osoa eta dimentsio guztiak gertatu ohi dira birmoldaketaren azpian.

Kristautasunaren --Kristoren Elizaren-- hiru funtzio funtsezkoak hauek dira: Gizon-emakumeen fedearen suspertzea (**profesia**), fededunen elkartasuna burutzea (**koinonia**), elkarrenganako zerbitzua sustatzea (**diakonia**). Jainkoaren *hitza, *sakramentuak eta *ministeritzak ditu Elizak eginkizun horiek betetzeko dohainak. Hiru dimentsio horien inguruan egituratzen da Kristoren Eliza. Horregatik, horietakoren batetik sortzen da kristautasunaren krisialdi bakoitza. Krisia eteteraino doanean, *heresia, *zisma edo *apostasias aurkitzen dugu.

1. Sekta ala Eliza unibertsala?

Kristautasunak bere lehen krisi larria judaismoaren markoa hautsi eta bere misio unibertsalaren aldeko erabakia hartzean izan zuen, lehen mendearen erdialdean. Eztabaida gogorrak sortu ziren: erdi-erdiaren gertatu ziren S. Pedro eta S. Paulo. Agiriari zera zegoen: *paganis- motik kristauturiko fededunek *judaismoko erritoak (*erdainkuntza, etab.) bete behar ote zituzten ala ez; baina funtsean, askozaz larriago zen arazoa: Jaundaismoaren barruko *sekta izan behar ote zuen kristautasunak, ala Herri guztien *Eliza unibertsala izan behar zuen.

K.o. 49. urtean Jerusalemen elkartu ziren apostoluak auzia erabakitzen. S. Pauloren eritzia nagusitu zen: Elizak bere misio unibertsala baieztatu zuen, eta judaismoarekiko lotura eten zuen. Noski, kristautasuna Jainkoak hautaturiko talde itxia edo sekta izan behar zuelako ideia behin eta berriro sortu izan da historian zehar. Lehen mendean bertan zabalduriko gnostikoen "kristau"-sektak desafio gogorra jarri zion kristautasunari, kristau judaizanteen joera beretsua paganismitik berrituz. Ez zuen behingoan gainditu krisialdi hori Elizak.

Lagugarri izan zuen seguruenik Jerusalemgo hiriaren birrintzea eta Israel herriaren sakabanatzea; baina, bestalde, Inperio handiaren barruan gutxiengo txikia izateak eta agintarien aldetik hainbat aldiz erasoak eta jazarraldiak jasan izanak, sektaren defentsa-joerata bultzatu zuten Eliza. Gertatuz, sekta judutzat hartzen zuten berandu arte paganoek.

2. Salbamera Jainkoagandik

313an Konstantino enperadoreak zilezgitatu egin zuen kristautasuna Inperioan, Milango ediktuaren bidez. Horrela atzera gelditu ziren Dezioren eta Dioklezianen jazarraldiak. Eta egoera erabat berriari jarri zen Eliza; 380an Inperioko erlijio ofiziala bihurtzeraino: Eliza inperiala. Ik. Teologia inperiala.

Baina hain zuzen, kristautasuna indar historiko, sozial eta politiko bihurtu den hone-tantxe, gertatzen da bigarren krisialdi nagusia: bereziki *arianismoak ekarri zuena, eta gero beste erataria *pelagianismoan luzatu zena. Bertan eztabaidan zegoena funtsean kris-tau-salbamenaren izatasuna zen: Jainkoagandikoa zen ala giza indarretatik eta historiatik ote zetorren. Ariok nolabait kristautasunaren heleniartzearen ondoriozko pentsaera ekarri zuen teologiara: *Jesukristo filosofia greziarreko Logos omen zen; Jainkoaren sorkaria, be-raz. Kristauen salbatzailea, orduan, ez zen berez Jainkoa. Arrakasta handia ukan zuen ari-a-nismoak, nahiz eta Nizeako Kontzilioak gaitzetsi. Eta halako batean *kristau-herri osoa ariotarra bihurtua zirudien nonbait.

Kristau-salbamenaren nondikoaren eta iturburuaren inguruan gertatu zen IV. eta V. men-deetan pelagianismoaren eta S. Agustinen arteko eztabaida. Ezaguna da S. Agustinen garran-tzia Elizaren historian, besteren artean gizon-emakume guztien jainkozko *salbamenaren pre-mia eta horren unibertsaltasunaren irakatsia finkaturik utzi zituelako. Hark definituriko *jatorrizko bekatuaren irakatsia ere kristau-salbamenaren irakatsia oinarritzera dator.

Bestalde, mundu grekoaren garaia gaindituz, kristautasuna mundu latinoan finkatuz joan zen garai honetan; besteren artean Erromako liturgi hizkuntza bihurtu zen latina. Latindar-tze horren gain dator Elizaren hedatzea, mendebaldera zabalduko "Herri barbaroen" kristau-tzearekin: Frankoak, bisigodoak, etab. VI. mendearen azkenean aita santuak *misiolariak bi-dali zituen Ingalaterraraino, S. Agustin Canterbury-koaren gidaritzapean.

Garai honetako datu inportantea da mendebaldeko *monakotzaren sorrera, 540. urtean, S. Benitoren erregelarekin. Erdi aro osoan funtsezko eginkizuna edukiko zuen monakotzak Europa-ko kristautasunaren historian.

3. Islamismoaren bultzada

622an gertatu zen Mahomet-en *hejira. Berau izan zen islamismoaren zabalkundearen hasie-ra. Erlijio monoteista berria kristau-herriari indar handiz hedatzean, berebiziko krisia eka-rru zion kristautasunari; bi erlijio monoteisten arteko borroka funts-funtsezko gertaera izan zen Erdi Aro osoko kristautasunaren historian. Gailurreko momentua, *kristandade osoan eskandalu handia sortu zuena, Omar kalifak Jerusalem hartzea izan zen (637). Krisialdi be-rria ez zen etorri oraingoan Elizaren barrutik, kanpotik eraginda baizik.

Islamismoaren oldarrez kristandadeak bere lurralde handiak galdu zituen Afrikan, Ekialde Hurbilean, Espainian. Kristautasunak orduan Europako iparraldera jo zuen, ebanjelizazio-la-nean: mendebaldeko Elizak Frisiara, Danimarkara eta Eskandinaviara; Ekialdekoak Herri

eslaviarretara eta Errusiara. 856an Zirilo eta Metodiok eslaviera sartu zuten Elizaren liturgiako hizkuntzatzat. Eslaviarren arteko *misioa izan zen, besteren artean, ekialdetar eta mendebaldar Elizen arteko gatazka-gaietako bat garai hartan. Beste gatazka-gai garrantza *irudien gurtzarena izan zen edo ikonoklasmoarena. (Ik. Ikonoklastak). Arazo hauek, teologiazko urruntzeak eta Erromaren eta Konstantinopoliren arteko konkurrentzia politiko-eklesiastikoaren inguruko borrokek, Kristoren Elizaren bi alderdiak (ekialdekoa eta mendebaldekoa) gero eta urrutirago jarri zituen elkarrengandik.

Bitartean Erromako Elizaren eragin kulturala eta botere politikoa handituz joan ziren (756an eraiki zituzten Elizaren estatuak), Erromatar-germaniar Inperio Sakratua eraikitze-raino, Karlomagnoen agintepean eta aita santuaren babespean (800). Inperio islamiarraren kontra-pisuarena edo egiten du kristau-inperioak; izan ere 929an eraiki zuen lehenak Kordobako kaliferria, mendebaldeko kristandadearen bihotz-bihotzean finkatuz; eta 1010ean birrindu zuten islamiarrek Jerusalemgo Hilobi Santuko basilika. Ondoren etorriko ziren *gurutzadatarako zirikadak noski. Ik. Hilobi santua.

4. Eliza Handiaren zisma

Eliza Handiaren izena eman izan diote historigileek ekialdetar Elizaren eta mendebaldar Elizaren arteko *zismaren aurretikoari. 1054ean burutu zen hori, aita santuaren mandatariek Mikel Zerulario eskomikatzean. Aspalditik zetorren bien arteko urruntzea; eta arazo nagusietako bat gertatuko da zisma hori, XV. mendearen erdiraino (Florentziako Kontzilioa, 1439). Berririo batasuna lortzeko ez zuten batere lagundu mendebaldeko kristandadetik *Lurralde Santua islamiarrei kendu eta kristandadearentzat berreskuratzeko asmoz edo aitzakiz antolatatu eta egin zituzten gurutzadek. Horietako lehen 1071n antolatatu zuten.

1182an jaio zen S. Frantzisko Asiskoa, frantziskotar ordenaren eta mugimenduaren era-tzailea. Beraren predikuak, bizierak eta jarraitzaileei utzi zien izpirituak arnasa ebanjeli-ko berria ekarri zuen garai hartako Eliza feudal mundutartuaren eta Elizaren handikeria instituzional, eklesiastiko eta politikoaren barrura. Mugimendu horretatik sortu zen, baita ere, Elizaren misiolariartzako haize berria: islamiarren arteko frantziskotarren bakezko mezua (Eliza ofizialak gurutzadak bultzatzen zituen bitartean) eta bereziki mongolen arteko misio-lana (Joan Piancarnino-koa, 1256). Ik. Frantziskanismoa.

Garai honetako Elizaren kulturazko gidaritza Europan ezin da nabarmendu gabe utzi: Uni-bertsitateak, eskolastiko handiak (S. Tomas Akinokoa 1234ean jaio zen), katedrale handiak, erakunde sozialak, etab. Ik. Eskolastika.

Bitartean, eta Elizaren barruko botere tenporal-izpiritualerako borroken artean --1378-1417 tartean gertatu zen *mendebaldeko zisma handia, Eliza hiru aita santuren agintepean banandurik egoteraino iritsi zenekoa--, erreforma-mugimendu bortitzak sortu ziren leku ez-berdinetan. Horien eragile nagusietako bi J. Wiclif eta J. Huss Konstantzako Kontzilioak gaitzetsi zituen (1414-1418). Gertakari horrek, ordea, bidea itxi baino gehiago ireki egin zion ondoren etorriko zen Erreforma-mugimendu zabalari: *Protestantismoari.

5. Kristoren Elizaren erreforma

Elizak barne-erreformaren premia zeukan: bereziki mendeetan zehar erantsiriko pisu instituzional eta tenporala astintzeko. Europan zehar zabalduko *humanismo berriak eragin handia izan zuen Elizaren izpiritu eta egitura berriak eskatzean. Erreformaren eskabidea oso zabaldua zegoen Eliza osoan. Barne-krisialdi handia eta zabala ekarri zuen horrek. Martin Luter-ekin eta beste erreformatzaile handiekin lehertu zen krisia, *protestantismoaren mugimendua eratzean. Haien gaitzespenaz gain, Eliza Katolikoak bere barne-erreformarako Kontzilioa egin zuen (Trentokoa, 1545-1563). Baina bitartean mendebaldar Eliza banandua zegoen bi alderditan: iparralde (luterarrak, erreformatuak eta Eliza anglikanoa); hegoaldeko estatu latinoak, Erromako Eliza Katolikoa osotzen zutenak. Trentoko Kontzilioak haustura horren drama zeraman barruan.

Lehenago ekialdetar Elizaren hiriburua, Konstantinopoli, islamiarren eskuetara eroria zen (1453), eta Eliza Ortodoxoaren gidaritza Moskura, "hirugarren Erromara", igaro zen. Erromako Eliza Katolikoak ezezik, Ortodoxoa ere *Erreforma protestantearen, bereziki *kalbinismoaren, aurkako bere jarrera erakutsi beharrean aurkitu zen, hainbat urte beranduago ba-zen ere (Jerusalengo Kontzilioa, 1672). Hiru *Eliza edo *Konfesio handiak finkaturik zeuden, beraz, Kristoren Eliza Handian, eta *konfesionalismoa nagusitua zen. Horren adierazgarri izan ziren Europako erlijio-gerrateak (1562-1593). Ik. Erlijio-gerra.

Europar hain murriztua gelditu zen Erromako Eliza Katolikoarentzat misio-lanerako eta zabalkunderako mundu berria ireki zen, Espainiako eta Portugaleko inperioekin batera, Ameriketako, Afrikako kostaldetan eta Ekialde Urrunean (India, Txina, Japonia, etab.). Lan honetarako garrantzi berezia hartuko zuen 1539an sortua zen Jesusen Lagundiak. Jesuitek eta frantziskotarrek eramango zuten Elizaren misiolaritzaren eginbiderik handiena. S. Frantzisko Xabierkoa, 1542an Indiara abiatu zena, garai honetako misiolaritzaren eredu handi bihurtuko zen. Dena dela, Ameriketako inperioaren indar politiko eta militarren babesean misio-lanak izan zuen arrakasta bera ez zuen izango misio-lanak ekialdean; Japonian, hain zuzen, ihar-despen politiko gogorrek ere sortu zituzten kristautasunak (adierazgarri, besteren artean, 1590ean eta 1638an kristauak jasan behar izan zituzten jazarraldi latzak).

Bitartean protestanteen artean erreforma-mugimenduak berriro egin ziren; horien artean nagusietako bat Wesley-k 1738an Ingalaterran sorturiko metodismoa. Bestalde, Ingalaterran jasandako erasoaldiak ere tarteko, *anglikanismoa eta protestantismoa Ipar Amerikara zabaldu ziren XVII. eta XVIII. mendeetan.

6. Sekularismoa eta kristautasuna

Nahiz eta aurreko garai horretan kristautasuna beste kontinente guztietara zabaldu, europarra eta europazentrista jarraitzen zuen. Kolonietako Elizak Europako araberakoak eta irudikoak ziren funtsean.

Garai berriaren hasiera sinbolikoa Frantziako erreboluzioa izan zen (1789). Errazionalismoaren eta sekularismoaren izenean abiatzen da garai berria. Adierazgarriak behinena gizakiaren eta gizartearen beregaintasuna da, itzal erlijiozkoarekiko: filosofiazko beregaintasuna, zientziatzko beregaintasuna, politikazko beregaintasuna, teknikazko beregaintasuna, etab. Alor guztietan joango da nabarmenduz sekularpeneko mugimenduaren "oldarra" erlijiozkoaren aurrez aurre. 1793an Frantziako deklaraturiko "Arrazoimenaren gurtza" oso esanahitsuak izan zen.

Politikaren mailan estatu laiko eta liberalen eraikitzeak kutsu antiklerikal handia zuen: hau da, Eliz *hierarkiaren eta *klerikalismoaren botere soziala eta politikoa uxatzera zihoan. Guzti horrek Elizaren instituzioan sorturiko krisi eta gatazkak bere gailurra —maila sinbolikoan behintzat— italiar armadak Elizaren estatuak eta Vatikanoa hiria bera hartzean gertatu zen (1870). Estatuaren eta Elizaren arteko *konkordatuak bi botereen arteko bereizkuntza finkatzera etorri ziren funtsean.

Europako kristautasuna eta bereziki Eliza Katolikoa jasaten ari ziren alde askotako sekularismoaren eraso eta eragina, eta horren ondoriozko krisialdia, Vatikanoko I. Kontzilioan nabariak gertatu ziren (1869).

Fenomeno orokor horren barruan dago noski *askapen sozio-ekonomikoaren mugimenda, sekularismoaren alderdi sozial eta laborala gisa. *Marxismo anti-erlijiozko militantearen arrakasta eta zabalkundeak gertatu da XIX. eta XX. mendeetan kristautasunarentzat krisiaren alderdirik nagusienetakoa. Azken batez, tradizioz kristautasunaren itzalpean zeuden jendaldeak *apostasiaren izena du krisiaren alderdirik nagusienetarikoa, Leon XIII.aren *Rerum novarum* *entziklika garrantzizkoak (1891) aitortzen duenez. Horren ondorio nabarmenenak geroago etorriko ziren, 1917ko Errusiako iraultzaren ondoren eta bereziki II. Munduzabaleko Gerratearen ondoren eraikitako estatu komunista eta ofizialki ateo militanteekin.

Zalantzarik gabe bere historia luzeko desfiorik handienetakoa izan du kristautasunak sekularismo orokor horretatik —eta horren ondorio nabarmenenak diren *agnostizismo, *ateismo eta *marxismo masiboetatik— etorri zaiona.

Bitartean kristautasun "europarraren" eta Elizen misio-lana Afrika, Asia eta Ozeania aldera doa, Europako estaturen kolonien babesean, eta horrek nabarmentzen duen europazentrista moari lotuta: hain zuzen, I. eta batez ere II. Munduzabaleko Gerratearen ondoren Europak bere hegemonia galdu eta Afrikako eta Asiako koloniak independentzia lortzen duten arte. Ondorengo neokolonialismo ekonomiko eta politiko eta guzti, "Hirugarren munduko" Herriek beren askapen sozio-ekonomikoaren eta beren berberatasun kulturazkoaren aldeko borroka eta ekintza berriak abiatzen dira. Dinamika horretan sarturik gertatzen dira noski kristauak eta kristau-Elizak ere. Horrekin zerikusi berezia du, eta nolabait horren erantzuna izan nahi du, azken hogeitaz landu eta zabaldu den pentsamendu teologiko berriak, **Askapen-teologia** deitua.

Desafio ikaragarri horren aurrean, kristau-Elizek batzutan uzkur eta babes-bila jokatu dute; bestetan ausartago, barne-berrikuntzaren bila. Berrikuntza exegetiko, teologiko,

liturgiko eta apostolikoak mundu "sekulartu" horri erantzun nahian etorri dira funtsean. Eliza Katolikoaren aldetik Vatikanoko II. Kontzilioa (1962-1965) izan zen ahaleginik handienetakoa bide horretatik.

Sekularismo orokorraren desafioaren eta horren ondoriozko apostasia hedakorren aurrean bere lehengo kontsistentzia galdu du kristau-Elizen mailako *konfesionalismoak --eta baita erlijioen arteko "konfesionalismoak" ere--. Horren fruitua da Elizen arteko *ekumenismoa, erlijioen arteko ere bihurtu dena. Mugimen ekumenikoak XIX. mendean eduki zuen bere hasiera; baina bere abiapuntu eutsia mende honen hasieran (Edinburgh-eko Misio-konferentzian, 1910ean) izan zuen, eta bere benetako gorputz trinkoa 1948an hartu zuen, *Elizarteko Kontseilu Ekumenikoa sortzean eta ondoko Elizen arteko harremanak lantzean. Eliza Katolikoak, bere aldetik, izpiritu berbera bereganatu eta berretsi nahi izan zuen Vatikanoko II. Kontzilian.

Azken ekintza, sinbolikoa baina esanahitsua, 1986ko urrian munduko erlijio eta kristau-Konfesio nagusietako buruzagiek Italiako Asis-en --S. Frantzisko Asiskoaren herrian--, bakearen alde otoitz egiteko egin zuten bilera izan zen, aita santuak dei eginda. Mendetan zehar mundu zabalera bere *misio- eta *ebanjelizazio-ekintza eramaten diharduen kristautasunarentzat gaurkotasan apartekoa edukiko du erlijioen arteko "ekumenismoak", bereziki Asiako erlijioen eragina mendealdetako kristauen artean zabaltzen ari den honetan eta komunikabide sozialek gero eta gehiago erlijioen arteko mugak ere nolabait lausotzera doazela dirudien honetan, gaurko gizon-emakumei alde bateko eta besteko mezuak etengabe datozkienean.

Kristau-errebelazioaren absolututasunak eta kristau-salbamenerako mezuaren unibertsaltasunak konnotazio berriak hartzen dituzte seguruenik munduaren planetarizazioko garai honetan, kristautasunak bere jatorriasuna eta berberatasuna birrargitu nahi dituen mundu horren barruan.

Krisialdiz krisialdi hogeimen mendez irau du kristautasunak. Hasierako Elizaren eta gaurko kristautasunaren arteko aldeak oso handiak dira noski; hala ere, etenik gabeko lerro historikoa nabaria da, erakunde historiko berbera dela esateko modukoa. Gorabehera, krisi eta haustura historiko guztien artean halako moldakortasuna, kultura ezberdinak asimilatze eta funtsezko berberatasuna gordetzeko oinarriaren argibidea ematean, fededunak Kristoren Elizaren jainkozko misterioa eta Izpiritu Santuaren eragina aitortuko ditu.

VII. KRISTAUTASUNAREN ETORKIZUNA

Salbamenerako bidetzat hartzen diren erlijioen artean, kristautasunak bere burua aitortzen du absolututzat, behin-betikotzat eta unibertsaltzat, gorago adierazita gelditu denez.

Absolutua izateak zera adierazten du hemen: beste bide guztien burutzapena dela (hori *inklusibismoaren ala esklusibismoaren arabera ulertzeak ez du hemen konturik). Behin-betikoa dela esateak kristau-errebelazioa azkena dela adierazten du, eta horrekin Jainkoak ireki duen bidea munduaren azkeneraino joango dela. S. Mateoren ebanjelioaren azken hitzak aipatzen ditu kristautasunak sarritan: "Eta ni, zeuekin izango nauze egunero munduaren azkenenarte" (Mt 28,20).

Hitz horietan aurrekoak dira, hain zuzen, besteren artean, kristau-elkarteen unibertsaltasun dinamikoa edo munduzabal osorako misioa Jesukristoren agindu gisa adierazten dutenak: *Ahalmen oro eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin Herri guztiak nire ikasle, Aitarean eta Semearen eta Izpirituaren izenarekin bataiatuz".

Hitz horiek esan (edo idatzi) zirenetik ia hogeimen mendean igaro dira. Eta kristautasunaren edo kristau-Elizen zabalkundeari begiratzen badiogu, itxura guztiak daude esateko, porrot egin duela asmo hark, nahiz eta bera izan erlijiorik handiena eta hedatuena.

Kristau-Eliza guztiak batean harturik, 1986an munduko biztanleetatik % 31,39 dira kristauak. *L'état des religions dans le monde* aipaturiko liburuak 1900, 1970, 1986 urtetako datuak (kristauenak, ez-kristauenak, ez-sinestunenak) konparaturik eta 2000. urtera estrapolaturik, honako aurrikuspenak ematen ditu: biztanleak, 6.161.477.300; kristauak (guztira), 1.921.687.500 (% 31,18). Mende honetako munduko biztanlearen eta kristauen kopuruaren proportzioaren eboluzioa honako hau izan da: 1907, % 34,3; 1954, % 32,1; 1958, % 28,7; 1963, % 29,23; 1976, % 30,48.

Ikusten denez, mende honetan kristauen proportzioa, munduko biztanlearen osoari begira, nahiko geldi dago, zerbait beherantz. Bitartean, agnostikoak 2.923.300etik (1900),

825.072.900era (1986) igaro dira, eta 1.071.888.400 izango dira 2000. urtean. Ateoak, berriz, 225.600 (1900), 213.893.500 (1986), eta 262.447.600 izango omen dira 2000. urtean. (Beti goian aipaturiko liburuaren arabera). Agnostikoen eta ateoek kopurua gehienbat auto-reek "religion chinoise" deitzen dutenaren kaltetan doa; izan ere, Txinan 1986an %28 bakarrik dira erlijiodunak; horietatik %20,1 "religion chinoise" delakokoak (erabat 187.994.000); 2000. urtean 158.470.600 bakarrik izango dira erlijio horretakoak, biztanleak 1.061,1 milioitak (1986) oso gora igoko direnean.

Kristauen proportzioak eutsi egingo dio Latin Amerikan eta Afrikan egingo duen gorakadarengatik bereziki. Lehenengoan biztanleetatik % 95etik gora dira kristauak; bertan biztanleagoak daraman gorakadarekin, kristauen kopurua ere era berean handituko dela uste izan behar dugu.

Kristautasunaren makro-misio munduzabalekoari begiratu, beraz, aurrenik beste erlijio handien aurrez aurre dago: bereziki *islamismoaren, *budismoaren eta *hinduismoaren aurrean. Hinduismoa Indian kokatzen da bereziki. 2000. urtean 859.252.300 hinduista izango dira. Gainera, nahiz eta berez ez izan hinduismoa misio-erlijioa, azken urteotan filosofia eta erlijio hinduisten zenbait korrontek gero eta erakermen eta eragin handiagoa du mendebaldeko hainbat lurraldetan: batez ere AEBetan eta Europan.

Budismoa eta islamismoa, berriz, misio-erlijioak dira. Alde batetik, budismoa orain arte ekialdera zabaldu baldin bada, horren presentzia --eskola ezberdinez-- nabarmenki zabaldu da azken mende honetan batez ere Ameriketara eta Europara. Ez dago zalantzarik, bai hinduismoak eta bai budismoak, beraien jarraitzaileen kopuruz aparte, desafio berria ipintzen diotela kristautasunari beronen lurralde eta gizarte tradizioaletan.

Azkenik, islamismoa, garai batean bere bultzada Europa aldera eta ekialdera eman zuena, orain bereziki Afrikara ematen ari da. Kontinente horretantxe egingo dute topo datozen urte luzetan islamismoak eta kristautasunak beren misio- eta hedapen-ahaleginean. Kontuan eduki behar da 2000. urtean 1.200.653.000 lagun izango direla musulmanak (gaur 837.308.700).

Sekularpena (beronen forma ezberdinez) da, ordea, garai honetan, kristautasunak duen desfiorik behinena eta ikaragarriena: XIX. mendetik datorren mugimendua; XX. mendean gorputz sozio-kulturazko handia hartu duena; eta hurrengo mendean nonbait askozaz gehiago zabalduko eta finkatuko dena.

Ekialdean, bereziki Txinan eta Japonian, hartu dituen eta hartuko dituen formak eta neurri handiak oso kontutan izanik ere, mende luzetan kristautasunaren lekuko eta kristau-zibilizazioaren zabalzaile izan diren mendebaldeko lurraldetako sekularpena (Europakoa eta Ameriketakoa) aztertu behar ditugu bereziki oraingo honetan.

Sekularpenaren (sekularismoaren) adiera guztiak ikutu gabe, bi nagusi --ezberdinak, eta nolabait elkarren kontrakoak-- aipatu behar ditugu: a) Kristautasunaren edo Elizaren beraren sekularpena edo mundutartzea, nolabait beraren izaera eskatologikoa ahanzten duena (Erdi Aroko Eliza feudalaren sekularpena eta horren kontrako erreforma-mugimendua aipatuak ditugu); b) Munduaren sekularpena, erlijioaren eta Elizaren kontrolpetik alde egin eta bere beregaintasuna eskatzea eta lortzea, alegia. Ik. Sekularpena eta erlijioa; Erlijioa eta erlijioak.

Bigarren honetaz ari gara hemen; dena dela, seguruenik ez daude bata bestetik erabat bereizterik. Munduaren (filosofiaren, zientziaren, teknikaren, politikaren, ekonomiaren) sekularpenak sarritan erlijioaren eta kristautasunaren aurkako eta ukapenezko joera eta forma hartu ditu (*ateismoa) edota haien gairak (*agnostizismoa).

Sekularpenaren eta sekularismoaren desafioa galanta da kristautasunarentzat. Badirudi laugarren mendean *arianismoari buruz hainbat eliztarrek sentitzen zutena nabari dutela gaur askok: mundu osoa sekularismoak hartua duela. Batek baino gehiagok du iragarria erlijioaren amaia ere, eta bereziki kristautasunaren ondoko kristau-osteko aroa.

Horren aurrean batzuk bestelako sintomak ikusi uste dute munduan zehar, eta mendebalde sekularatuan ere bai: hots, erlijiozko susperraldi berriak hainbat lekutan eta girotan; eta kristautasunetik kanpo ere, erlijio berrien sorrera eta indartzea. Zalantzarik gabe gertakari guzti horiek ez dira ahanztekoak. Kristautasunaren "geo-misioari" dagokionez, badira horren desplazamendua (Europatik Latin Amerikara eta Afrikara, alegia) nabarmentzen dutenak, Europaren eta "lehen munduaren" sekularismoaren ondorioz, eta "Hirugarren mundua" kristautasunaren etorkizuneko babesleku bihurtuz.

Zalantzarik gabe, oso kontu handikoa da kristautasunaren "des-europartze" hori: Eskualdeko Eliza izatetik Eliza unibertuala izatera igarotzea dela esaten du K. Rahner-ek. Europa

ez da izango etorkizunean kristautasunaren erdigunea, edota erdigune bakarra behintzat. Kristau-elkarteen eta fededunen kopuruaren aldetik ezezik, badirudi Latin Amerikako eta Afrikako Elizek beraiei dagozkien lekua eta protagonismoa hartzen ari direla, fedezko adierazpideak eta Eliz formak sortzeko, teologiazko gogoeta berria bultzatzeko eta beren Herrien *askapena eta herritasuna lortzeko eta lantzeko bidean, eta ekinean engaiatzeko duten gaitasunaren aldetik ere bai. Ez da kontradikziorik gabe gertatzen ari fenomeno hori, baina kristautasunaren esperantza historiko berria sortu da hor.

Areago, K.S. Latourette historigilearen ustez, kristautasunaren amaierako puntuan ez, baina horren hasierako puntuan gaude orain, sekularismoko eta *ekumenismoko honetan. Izan ere, sekularpena kristautasunaren beraren irakatsiaren eta izatearen sustraian eta funtsean dago, idazlan honen lehen atalean adierazi dugunez. Bestalde, kristautasunaren uni-bertsaltasun historikoaz agian lehen aldiz orain mintza gaitzeko.

Baieztape horien testuinguruan ulertu behar direla uste dugu "Hirugarren munduko" Eliz elkarteen lekua eta horien ekarpena kristautasun osoarentzat. Batetik, kristautasunaren uni-bertsaltasun "ekumenikoa" Herri bakoitzaren kulturazko tradizioaren eta dinamikaren barrutik "Eliza berriak" sortzean eta eratzean gauzatzen da, Kristoren Elizaren historikotasun anitzaren arabera; bestetik, gizon-emakume, gizarte eta Herrien askapen-dinamikaren eta historiaren arabera eta eragilea da kristautasunaren sustraian dagoen sekularpen-prozesua.

Horrela ulertuz sekularpena eta horrek kristautasunarekin duen erlazioa, adierazgarria da "Hirugarren munduan" sorturiko eta bereziki zabalduko *askapen-teologia, mendebaldeko mundu aberatsen neokolonialismoaren aurka munduko Herrien artean beren askapen politiko, ekonomiko eta kulturazkoaren alde borrokan eta ahaleginetan diharduten Herrietan, hain zuzen ere. Ordena nazioartekoa eta soziala, hainbat aldiz erlijiozko zioen bidez zurikatua eta sakraldua, de-sakraltzearen bidetik eta Herri eta gizarte zapaldu eta hurrupatuaren askapen-borroka bidetik doa kristauen aldetiko teologiazko gogoeta, askapen-teologia deritzana, bereziki kristau-elkarte herritarretan eta Eliz elkarte berrietan landua.

Etorkizuneko kristautasunaren geo-misioarentzat eta apostoluzarentzat desafiorako ezezik itxaropenerako dinamika ere irekia da seguruenik guzti horretan.

Geroak esango du kristautasunaren ondoko aroan abiatuak garen ala beste krisialdi handiren baten barruan gauden.

Ik. Kristau-erlijioa Euskal Herrian; Erlijioa eta erlijioak; Kristautasun anonimoa; Jesu-kristo; Eliza; Ebanjelioa; Euskal Eliza; Euskaldun fededun; Agerkundera.